

Euskarazko terminologiaren hasiera fonetika-fonologiaren arloan¹ *The beginning of Basque terminology in the field of phonetics-phonologies*

Ricardo Gómez-López*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: The aim of this contribution is to examine the initial steps taken in the field of Basque-language terminology related to phonetics and phonology. In order to do so, I look at grammatical works written in Basque, textbooks aimed at teaching reading in Basque and articles which dealt with the topic of sounds in Basque, all published up to 1936, collect the terms that appeared in these works and analyse some of them. The study demonstrates that most of the terms which appear in the oldest works are loanwords. Moreover, in regard to the construction of neologisms, there are examples of such words created by Larramendi from the early 19th century on which continue to appear until the early 20th century; additionally, most of the neologisms that appear from the late 19th century onwards were created by Azkue and, mainly, Arana Goiri.

KEYWORDS: Basque language; phonetics; phonology; terminology; neologisms.

LABURPENA: *Ekarpen honen helburua fonetika eta fonologiarekin lotutako euskarazko terminologiaren lehen urratsak aztertzea da. Horretarako 1936 arte euskaraz idatzitako gramatika-lanak, euskaraz irakurtzen irakasteko kartillak eta hotsen arazoei buruz euskaraz jardun zuten artikuluak arakatu ditut, lan horietan agertzen diren terminoak bildu ditut eta haietako batzuk iruzkindu ditut. Azterketak erakutsi du lan zaharretan agertzen diren termino gehienak mailegatuak direla. Hala-*

¹ Artikulu honek hurrengo ikerketa-proiektuen laguntza izan du: «*Monumenta Linguae Vasconum 6: avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca (MLV6)*» (MICINN, PID2020-118445GB-I00) eta «*Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada*» (HLMV-LHC) (Eusko Jaurlaritzan, GIC.IT698-13).

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Ricardo Gómez-López. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatearen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – ricardo.gomez@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0002-7177-5765

Nola aipatu / How to cite: Gómez-López, Ricardo (2023). «Euskarazko terminologiaren hasiera fonetika-fonologiaren arloan», ASJU, 57 (1-2), 357-393. (https://doi.org/10.1387/asju.25958).

Jasoa/Received: 2022-10-19; Onartua/Accepted: 2023-01-13.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

ber, hitzberrigintzari dagokionez, Larramendiren hitz berriak XIX. mende hasieran agertzen hasi ziren eta XX. mende hasiera arteko adibideak ditugu; bestalde, XIX. mende amaieratik aurrera Azkuek eta batik bat Arana Goirik sortutako hitz berriak dira nagusi.

HITZ GAKOAK: euskara; fonetika; fonologia; terminologia; hitz berriak.

1. Sarrera

Artikulu honetan euskaraz idatzitako gramatika-lan eta artikulu batzuk hustu ditut, haietan agertzen diren fonetika-fonologiekiko terminoak bildu eta aztertzeko, eta horrela arlo horietako euskarazko terminologiaren lehen urratsak ezagutzeko asmoz.

Corpuserako hautatu ditudan lan-motek muga nabarmenak dituzte. Izan ere, esan gabe doa, euskarazko bestelako lanetan ere fonetika-fonologiekkin lotutako hitz batzuk aise aurki daitezke, hala nola *hots*, *pronuntziatu*, etab. Alabaina nire xedea izan da hitzok termino gisa erabiltzen diren lanetan jasotzea, edo hortik ahal den gertue-nik bederen. Horregatik ere ez naiz hiztegietatik abiatu, lexikografia-lanetan maiz hitz asko agertzen baitira, lehenago edo geroago inoiz erabili gabeak.

Bestalde, terminotzat zer hartu dudan erabakitzeko, Trasken hiztegia (1996) hartu dut erreferentzia gisa, baina puntu horretan ere eskuzabal jokutzen saiatu naiz. Esaterako, lekua eman diet han agertu ez arren garai batean soinuez jardutean erabiltzen ziren hitzei (adib., *letra*, *barbarismo*), edo Trasken hiztegian ez dauden, baina «familia» berekoak diren hitzei (adib. *contraction* agertzen da, baina ez *contract*).

Artikulu honelaxe egituratuta dago: corpusa aurkeztu ondoren (§ 2), emaitzak hurrenkera kronologikoan aurkeztu eta iruzkindu ditut (§ 3); amaitzeko, ondorioak azaldu ditut (§ 4).

2. Corpusa

Jakina denez, xx. mendera arte urri eta bakanak dira euskaraz idatzitako gramatika-lanak —zentzu zabalenean harturik ere— baita euskaraz irakurtzen irakasteko abezeak ere. Horregatik, ahalegindu naiz ikerketa honetan xx. mendera arteko halako lan guztiak aintzat hartzen. Halaber, euskal gramatikagintza zaharraren amaiera Euskal Pizkundearen amaierarekin bat eginik (cf. Gómez-López 2023), corpusean xx. mende hasierako lanak ere sartu ditut.

Hona hemen, hurrenkera kronologikoan antolaturik, terminoak biltzeko hustu ditudan gramatika-lanak eta abezeak; jatorrizkoa ez denetan, erabili dudan edizioa ere aipatuko dut:

- Joanes Leizarraga, *ABC edo Christinoen instructionea othoitz eguiteco formarequin* (Arroxela, 1571).
- Joanes Etxeberri Sarakoa, *Escual Herriari eta escualdun guztiei escuarazco hatsapenac latin ikhasteco* (1712). Gidor Bilbaoren edizioa erabili dut (2015 [2006]: 117-322).
- Martin Harriet, *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan* (Baiona, 1741).
- Agustín Kardaberaz, *Eusqueraren berri onac* (Iruñea, 1761). Patxi Altuna eta Esther Zulaikaren edizioa erabili dut (2004).

- Luis Astigarraga, *Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de Gramática* (Donostia, 1825...). Egilea bizi bitartean kaleratu ziren edizioak erabili ditut: 1825, 1827, 1839 eta 1840.
- Francisco Jauregi, *Gramera berria, ikasteco eskualdunec mintzatzen espainoles* (1850, 1860, 1883). Ezin izan dut 1850eko alerik aztertu, baina ez du funtsezko diferentziarik 1860ko argitalpenarekin (Fernández de Gobeo 2018: 10).
- Jean-Baptiste Artxu, *Uskara eta franzes gramatika* (1852, 1853, 1868). Ezin izan dut 1852ko alerik aztertu.
- Resurrección M. Azkue, *Euskal-Izkindea* (1891).
- Pedro Antonio Ormetxe, *Agakia: euskeras irakurten ikastekoa* (1896, 1897).
- Sabino Arana Goiri, *Umiaren lenengo aizkidia* (1897).
- Juan Manuel Lertxundi Bazarrrika, *Euzkal-iztiya* (1913).
- José Zabala Arana, *Eliztia gipuzkeraz* (1924).

Goiko lanak ez ezik, zenbait artikulua ere arakatu ditut. Ez dira izan zitezkeen guztiak, jakina, baina nire ekarpen hau gehiegi ez luzatzearen kopurua murriztu behar izan dut, eta horregatik Jon Bilbaoren bibliografian «Fonética y Fonología» gaian agertzen diren 1936 arteko euskarazko artikulua hautatu ditut. Haietatik ondoko hauetan agertzen dira fonetika-fonologiei dagozkien terminoak:

- Azkue (1897, 1898, 1919-1920a-b)
- Garmendia (1911)
- Broussain (1919-1920)
- Eguzkitza (1919-1920a-c, 1924)

Bestalde, hainbat terminoren iturria bilatzeko, *OEH* baliatzeaz gain, Larramendiren (1745) eta Bera eta Lopez Mendizabalen (1916) hiztegiak eta Pagolaren tesia (2005) ere kontsultatu ditut.

3. Emaitzak

Atal honetan, aztertutako lan bakoitzean aurkitu ditudan terminoak ekarri eta haietako batzuk iruzkinduko ditut. Adibide bakoitzaren hasieran, terminoen lemak emango ditut, gaurko grafian, eta ondoren, terminoen testuingurua hobeki ulertzeko, adibideak agertzen diren esaldiak emango ditut, obra bakoitzean duten grafia erabiliz. Hala ere, artikulua gehiago ez luzatzeagatik, ez ditut beti termino batek obra batean dituen agerraldi guztiak bildu. Agerraldi bakoitzaren ondoren, iturriko orrialdea aipatuko dut, eta urtea azpialde batean egile baten lan bat baino gehiago sartzen direnean soilik gehituko dut.

3.1. Leizarraga (1571)

Leizarragaren *ABC* obran fonetika-fonologiekin lotutako lehenengo terminoak aurkitzen ditugu. Espero denez, hala garaiagatik nola egilearen ezaugarriagatik, termino guztiak mailegatuak dira:

- (1) *bokal, konsonant, diptongo, silaba*: cer den vocala edo consonanta, diphtōgoa edo syllabá (Aii-Aiii)

- (2) *pronunziatu*: hitzac distinctoqui eta claroqui pronuntia eraciz (Aiii)
 (3) *akzentu*: Accentuaren eguitecoa ' (Aiii)

Bistan denez, azken adibidean *akzentu* terminoa ikur grafikoari dagokio, ez hizke-
 raren indar edo doinu aldaketari.

3.2. Etxeberri Sarakoa (1712; Bilbao 2015 [2006])

Funtsean, Etxeberri latinaren deklinabideak eta aditz jokoak aurkezten baititu, ez dago aukera handirik fonetika-fonologiekin lotutako terminoekin topo egiteko. Hala ere, han-hemen bakan batzuk kausitu ditut:

- (4) *sinkopa, laburdura*: Declinacino hunetaco icenen genitivo pluralecoa da **prudentium**; **prudentum** sycopa edo laburdura da, hala nola **ingentum** (125 <312>)²
 (5) *luze, labur*: Verboen conjugacinoac dira laur:
 —Lehena, ceinaren bigarren presuna indicativo singularecoac baitu bere akhabantça *-as*, eta infinitivoa *-are* (luce), hala nola
amo, -as, amare
 —Bigarrena, ceinaren bigarren presuna indicativoco singularecoac bait[u] bere akhabantça *-es*, eta infinitivoa *-ere* (luce), hala nola
doceo, -es, docere
 —Hirurgarenac *-is*, eta infinitivoa *-ere* (labur), hala nola
lego, legis, legere
 —Laurgarrenac *-is*, eta infinitivoa *-ire* (luce), hala nola
*audio, -is, audire*³ (171 <338>)

OEĤk (s.v.) dakarren *sinkopa* terminoaren lehen agerraldia Kardaberazena da (ik. § 3.4). *Laburdura* ez du *OEĤk* jaso 'sinkopa' adierarekin; bai, ordea, ohiko 'abreviatura' adierarekin, Mitxelenaren adibide pare bat erantsirik.

Etxeberriren gramatikan, termino gehixeago agertzen dira «Hatsapenen hirurgarren partea / Rudimentorum tertia pars» atalaren hasieran (416-445; Bilbao 2015 [2006]: 292-318), non galde-erantzunen bitartez antolaturik gramatikari buruzko azalpen behinenak ematen baititu.

- (6) *letra*,⁴ *silaba*: Cembat dira Gramaticaren parteac?
 Laur: letra, sillaba, hitça eta perpausa (292 <416>)
 (7) *bokal, konsonant*:
 a. Letrac nola errepertitcen dira?
 Vocaletan eta consonantetan (292 <416>)
 b. Cembat dira vocalac? (292 <416>)
 c. Cembat dira consonantac? (292 <416>)

² Lehenengo zenbakia Bilbaoren (2015 [2006]) edizioko orrialdeari dagokio; bigarrena, Etxeberriren eskuizkribukoari.

³ Antzeko pasarte bat dago eskuizkribuko 427-428. orrialdeetan (Bilbao 2015 [2006]: 302).

⁴ *Letra* fonetika-fonologiekin lotutako terminotzat hartu dut obra zaharretan, oro har nahiko berandu arte gramatikariek ez baitzituzten letrak eta hotsak bereizten (cf. Oñederra 1989: 125).

- (8) *hasperapen*: **h** ezta consonanta, baicic hasperapenezco marca edo sein[a]lea (292 <416>)
- (9) *diptongo*: Vocaletaric cembat diptongo eguiten dira? (292 <416>)

OEHN (s.v. *hasbeherapen*) «Aspiración (fonética)» adiera dator eta ematen duen adibide bakarra Etxeberriren goikoa da.

3.3. Harriet (1741)

Martin Harrieten gramatikan gure intereseko oso termino gutxi azaltzen dira, eta den-denak mailegatuak eta aurreko obretan aurkituak, forma zehatza gora-behera:

- (10) *letra, boiel*: Goardia har eçaçu noiz ere Francefac haften baititu hitçac bortz letra hautaric çoiñac baitire *a, e, i, o, u*, eta deitcen baitire voielac (241)
- (11) *prononzatu*:
- Francefac batçuetan diferencia handi bat eguiten du efcibatcean, eta prononçatcean, letrac fañiatcen ditu haiñitz aldiz beren indarretan (264)
 - Hunela efcriba. Hunela prononça (264)
 - Francefean comuzqui hitzcen akhabançan efac ez dire, prononçatcen, [...] prononçatcen dire [...] behar dire prononçatu eta erran (266)

3.4. Kardaberaz (1761; Altuna & Zulaika 2004)

Hertsi-hertsian harturik, Agustin Kardaberazen *Euskeraren berri onak* ez da gramatika-lan bat, baina haren orrialdeetan zehar jesuitak euskal gramatikarekin lotutako hainbat gai jorratu zituen. Haien artean ez da falta euskararen ahoskerarekin lotutakorik. Gure aztergaiari dagokionez, aipagarria deritzot aurkitu ditudan terminoetan Kardaberazek, itxura denez,⁵ ez duela inoiz baliatzen Larramendiren hitz berririk, kasu guztietan *Hiztegi Hirukoitzak* horretarako aukera ematen badio ere. Ondorioz, Kardaberazen termino gehienak maileguak dira eta baten batzuk, euskal ondare zaharreko hitzak:

- (12) *barbarismo*:⁶
- barbarismo (28)
 - puntuari beñ solescismo ta barbarismo galantac botatcen cituen (45)
- (13) *letra*:⁷
- alfabetoco letra guciac (28)
 - Achea letra dan edo ez autoreen artean eztabaida andiac dira (33)

⁵ «Itxura denez» diot, kasu batzuetan litekeena delako Kardaberazek terminoren bat Larramendiren hiztegitik hartu izana. Adibidez, *laburtu*, Mikoletaren lekukotasuna alde batera utzirik, ez da Hegoaldean erabiltzen Larramendiren aurretik (cf. *OEH*, s.v.).

⁶ Cf. «Barbarismo, *hitzunea*» (Larramendi 1745: I, 129).

⁷ Cf. «Letra, *izkuira, bechia, letrá*» (Larramendi 1745: II, 41).

- (14) *pronunziatu*:⁸
 a. aoz pronunziatcen dana (32)
 b. Edoceñ lengoagetan itzeguiteco, aoz esan edo pronunziatu, guztia bat da (35)
- (15) *bokal, konsonante*:⁹
 a. 1. Erregla. *A, e, i, o, u*: bost letra oiei «vocalac» derizte. Vocalac esan nai du aoz bera esateco beste letren bearric ez duena, eta bera bacarric berez esaten dana (33)
 b. 2en Erregla. *Abc* edo alfabetoco beste letrai «consonanteac» derizte; esan nai du ez berez edo bacarric, baicican vocalaquin batean aoz esaten diranac (33)
- (16) *semibokal, mutu*:¹⁰ 3. Consonanteen artean batzuec semivocalac, besteac mutuac dira. Mutuac edo aoz esateco ots guchi eguiten dutenac, zortzi oiec dira: *b, c, d, g, k, p, q, t*. Semivocalac edo aoz esateco vocalen guisa diranac beste zortzi oiec: *f, l, m, n, r, s, x, z*. Oiec aoz esaten dira: *efe, ele, eme, ene, erre, ese, equix, zeta* (33)
- (17) *aspirazio, soñu*:¹¹ 8. *H, h*. Achea letra dan edo ez autoreen artean eztabaida andiac dira. Naiz letra naiz aspiracioa dala, edo beemenciaz soñu gogorra ematen duena, emen gure eusqueran ta Bizcaian ache ori alfarricaco edo servitcen ez duen gauza da (33)
- (18) *silaba*:¹² 10. [...] Quintilianoc (L. 12. c. 10.) cion *qu* esatean beste letra edo sylabac latzac eta gogorac biurtcen cirala (34)
- (19) *laburtu, trukatu*:¹³ 15. [...] Ala Provincian nola Nafarroan, ta ere gueiago Bizcaian, itzeguiteco edo aoz esatean itz asco laburtcen dira, bai ta letra asco trucatu ere: *b, d, f, p, t*, bata bestearen lecuan; ala *becatua, pecatua, farrez, barrez; ifiñi, ipiñi, ibeñi; ofizio, opicio; alferric, alperric; ezda, ezta; ezdet, eztet, eztezu, eztu* ta orrela beste asco, baña jaquiñac ta errazac (35)
- (20) *pronunziazio, esaera*:¹⁴ pronunziacio edo esaera gracioso edo soñu onecoa eguiten da (36)

⁸ Cf. «Pronunciar, *ogucitu, nasbaguetu*» (Larramendi 1745: II, 200) eta «Articular las palabras, *hitzac oguzi, oguzitu, nasbagetu*» (1745: I, 102).

⁹ Cf. «Vocal, letra vocal, *bechaoa*» (Larramendi 1745: II, 377) eta «Consonante, letra, opuesta a la vocal, *osquidea*» (1745: I, 224).

¹⁰ Cf. «Semivocal, *erdi bechaoa*» (Larramendi 1745: II, 281) eta «Mudo, *mutua, aobozatua*» (1745: II, 105).

¹¹ Cf. «Aspiración, *asquitea, asmatea*» (Larramendi 1745: I, 105) eta «Sonido, *otsá*» (1745: II, 301).

¹² Cf. «Silaba, *gueibechia*» (Larramendi 1745: II, 290).

¹³ Zaila da, *laburtu*-ri dagokionez, Larramendiren hiztegiko zein sarrearekin lotu asmatzea; izan ere, *OEH*ren arabera (s.v.), Larramendik sarrera hauetan dakar: «acortar», «atajar, acortar, reducir a menos espacio», «ceñir, abreviar, acortar», «abreviar, por acortar» eta «epitomar». Cf. «Trocar, *trukatu, gambiatu*» (Larramendi 1745: II, 351).

¹⁴ Cf. «Pronunciación, *ogucita, nasbaguea*» (Larramendi 1745: II, 200).

- (21) *diptongo, triptongo, sinkope, laburtze*:¹⁵ Diptongo ta triptongoric eusquerac bere itzac iracurte edo escribitcean eztu, ta errazago icasteco au ere erregalia da; iru dialectoetan syncope edo itzac laburtce chit asco ditu (41)

*OEH*ren arabera (s.v.), Kardaberazena litzateke *pronuntziazio* hitzaren lehen agerrialdia. Halaber, (20) adibidekoa litzateke *esaera* hitza 'ahoskera' adierarekin erabilitako lekukotasun bakarra (cf. *OEH*, s.v. *esaera*).

3.5. Astigarraga (1825...)

Corpusa aurkeztean ohartarazi dudan bezala, Astigarragaren gramatikaren lehenengo lau argitaraldiak erabili ditut (1825, 1827, 1839, 1840), egilea bizi bitartean kaleratu zirenak hain zuzen ere. Hala eta guztiz, fonetika-fonologiek lotutako termino bakanak agertzen diren pasarteetan ez dago lau edizioen arteko diferentziarik; beraz, hona 1840-koak bakarrik aldatuko ditut. Oso gutxi badira ere, Astigarragaren lanean aurkitu ditugu Larramendiren hiztegitik hartutako lehenengo termino garbiak (ik. 7. eta 8. oin-oharrak):

- (22) *izkira, letra, nasbagnetu*:
- esan nai det, euscaran izen guciac izquiria edo letra *a* onetan bucatcen dirala; bada icen egopear edo elcarrac, erac bacarric nasbagnetutcen edo esaten diranean, beti letra *a* onetan bucatcen dirá (3)
 - bucatcen dira letra edo izquiria *a* onetan (3)

3.6. Jauregi (1860)

Jauregiren gramatikan ere termino gutxi aurkitu ditugu eta denak maileguak dira, bat izan ezik. Adibideak 1860ko argitaraldiari dagozkio, 1883koak funtsean errata gehiago baino ez baititu:

- (23) *pronuntziatu*:
- espainoles bi ll kausitzen direnian, behar da pronunziatu —eilhe— (4)
 - eta aldiz —cha—che—chi—cho—chu— pronuntziatzen dire —tcha—tche—tchi—tcho—tchu (4)
 - solamente bada zonbeit hitz ez baitire pronuntziatzen gure languayaz ez kribatuac balire bezela (6)
 - Vd. iskribatzen da laburtuz eta behar da pronunziatu hi[t]z guziek in baliz bezala hola usted (92)
- (24) *tilet, letra, ebatsi, boz*:
- eta ikusten denian *n* tilheta gainian hola —ñ— deitzen da —egne— (4)
 - orobat —j— izendatzen da —jota— lehen bi letrac —j— eta —o— aho gangas kargatuz (4)
 - Clérigo —apeha— eskualdunec leituco dute hitz hori letra guziac hartuz, bizkitartian —é—ac tilheta gainian duelakotz behar da pronunziatu

¹⁵ Cf. «Diptongo, *birbechaoa*» (Larramendi 1745: I, 291), «Triptongo, *hirubechaoa*» (1745: II, 350), «Sincopa, *sincope*, figura, *bechaopaya*» (1745: II, 292) eta «Abreviar, por acortar, *laburtu*, *chaburtu*» (1745: I, 7).

—cle— aguan ebatsis, eta azken letra —o— bozaz kargatu gabe eskribatua balitz bezala hola —clé—rigo (6)

d. Lástima —á—ac tilheta duelakotz, aguan behar da bozaz ebatsi —las—kin huntan —lás—tima— azken letra kargatu gabe (6)

e. Diferentzia bada orobat, azkeneko letrac tilheta gainian duen hitzetan; laburtzeko plazan behar da bozaz azken letra kargatu —Komparazione—bat —castigó—ojalá— hauc—behar dire pronuntziatu azkeneko letrac doblezka balituzte bezela (6)

(25) *pronuntziazione*: Eskuarazko pronuntziationen gainian, eguin ditazke erreparu seguidakuac (11)

(26) *bokable*: Atz. Komposatua da bokable A—kin, zeinac markatzen baitu hainitz barrayatzia, eta doble bozekin *Tz*, markatzen baitu abundantzia (12)

Leizarragaren lanean ikusi dugun bezala (cf. § 3.1), hemen ere *tilhet* terminoak ikur grafikoa adierazteko erabiltzen du Jauregik. Areago dena, (24a) adibidean nabari denez, ez da soilik azentua markatzeko ikur grafikoa; *n* gaineko diakritikoari deitzeko ere erabiltzen du.

Harrigarri samarra da birritan agertzen den *ebatsi* terminoa. *OEHk* ez du jaso itxuraz duen ‘ahoskatu’ adierarekin (cf. s.vv. *ebatsi* eta *ebatzí*), eta nekez pentsa liteke errata bat dela, *ebaki*-ren ordeztu, birritan agertzen delako afrikatuarekin eta behin ere ez belarrarekin.

Jauregiren testutik hartu ditugun adibide guztietan *boz* hitzak ‘hots, soinu’ adiera duke (cf. *OEH*, s.v. *boz* 6).

3.7. Artxu (1852, 1853, 1868)

Aztertu ditudan bi argitalpenen artean (1853, 1868) ez dago funtsezko diferentziarik eta, beraz, beheko adibideak 1868ko azken argitalpenetik hartu ditut. Gainera, 1853koan ez bezala aldamenean frantseseko testua izateak termino batzuk hobeto ulertzen lagundu ahal digu:

(27) *letra*: Minzatzeko eta izkiribatze hitzak behar dira; hitzen egiteko aldiz, letrak (1)

(28) *azanz egile, letra azanz egile, azanz egile letra, azanzgile letra, letra azanzgile, azanzgile*:

a. Letra hoyetan sei badira azanz egile deithuak: A, E, I, Y, O, U / Six d’entre elles sont appelées productrices de son: A, E, I, Y, O, U (1)

b. letra azanz egileak yunto direnian / les voyelles réunies (1)

c. Letra azanz egile eztirenak / Les lettres qui, par elles mêmes, ne produisent pas un son (2)

d. azanz egile letren gainen / sur les voyelles (4)

e. azanzgile letra edo *h* mutu batez hasten diren hitzen aitzinian / devant une voyelle ou une *h* muette (6)

f. eta *ma*, *ta*, *sa*, izen *emen* aitzinian, izen *emea* hasten ezpada letra azanzgile batez edo *h* mutu batez / et *ma*, *ta*, *sa*, devant le nom féminin, si ce nom ne commence pas par une voyelle ou une *h* muette (22)

- g. Kasu hortan, *ma, ta, sa*, egiten dia, *mon, ton, son*, bi azanzgilek elgar yoitzez, sobera zabaleraz eztezetzen ahoa / En ce cas, *ma, ta, sa*, se changent en *mon, ton, son*, afin d'adoucir la prononciation et d'éviter un *hiatus* (22)
- (29) *azanz egin*:
- Bertze letrek eztiote azanzik egin sei hoyen lagunzarekin baizik / Les autres lettres ne peuvent produire un son qu'à l'aide de ces six (1)
 - e mutuak* ez du kasik azanzik egiten / L'*e muet* ne se fait presque pas entendre (3)
- (30) *izendatu*:
- Uskararen irakurtzian, letra azanz egile guziak izendatzen dira / Dans la lecture basque toutes les voyelles se font entendre (1)
 - Izenda zatzu / On les prononce (2)
 - Ti, c, s* izendatzen dira *s* bezala uzkaraz / *Ti, c, s* se prononcent comme le *z* basque (3)
 - C, a, o* edo *u* letren aitzinean, izendatzen da *K* bezala / *C* devant les lettres [*a, o, u*], se prononce comme le *k* basque (3)
 - e zerratua* hortzen zerratzez izendatzen da, *e zabala* aldiz ahoaren zabaltezz / L'*é fermé* se prononce la bouche presque fermée, et l'*è ouvert* en desserrant les dents (3)
- (31) *mutu, zerratu, zabal*:
- Badira frantsesean hirour *e* suerte: *e, é, è*. Lehena *e mutua* deitzen da; bigarrena, *e zerratua*; hirourgarrena, *e zabala* / Il y a en français trois sorte de *e*: *e, é, è*. Le premier se nomme *e muet*, le second, *é fermé*, le troisième, *è ouvert* (3)
 - Cet*, hitza hasten bada letra azanzgile batez edo *h* mutu batez / *Cet*, si le nom commence par une voyelle ou une *h* muette (23)
 - ce* aldiz, hitza hasten badu azanzgile edo *h* mutua ezten letra batek / *ce*, si le mot commence par une consonne ou par une *h* aspirée (23)
- (32) *tileta*:
- Franzes minzoan badire oraino hirour tileta, *é, è, ê* yarten direnak azanz egile letren gainen / Il y a encore dans la langue française trois accents: *é, è, ê*, qui se mettent sur les voyelles (4)
 - Tileta haou (') deitzen da frantsesez *apostrophe* / Ce signe (') s'appelle en français *apostrophe* (7)

Artxuk sortutako hitz berria da 'bokal' adierazteko *azanz egile* edo *azanzgile* eratorria, aldean *letra* izan edo *ez*. OEHn (s.v. *azantz*) Duvoisinien hiztegioko lekukotasuna soilik gehitzen dute, baina honek Artxuren aipamena egin zuela zehaztuz. Hala-ber, *izendatu* aditza 'ahoskatu' adierarekin erabiltzea ere Artxuren gramatika baizik ez dugu aurkitzen (cf. OEH, s.v. *izendatu* 5). Hirugarrenik, *tileta* bai 'azentu-marka' adierazteko (32) baita bestelako ikur ortografiko bat adierazteko ere erabiltzen du, kasu honetan 'apostrofoa' (32).

Azkenik, irudi luke batzuetan Artxuk nahiago duela parafrasi batez baliatu, termino jakin bat erabili baino. Hala jokatzeko duela susma daiteke, *hiatus* terminoa saihesteko, (28) adibidean eta baita, beharbada, (31) adibidean ere, azken horretan ez baititu «consonne» ez «*h* aspirée» zuzenean ematen.

3.8. Azkue (1891)

Ezbairik gabe, Azkueren *Euskal-Izkindeak* garrantzi handiko jauzi bat dakar euskarazko hizkuntzalaritza-terminologian, hala terminoen kopuru handiagoari nola hitzberrigintzaren pisuari dagokionez. Nolanahi ere den, lan honetarako, Azkueren gramatikako lehenengo atala soilik aztertu dut, prosodiari eta ortografiari buruzkoa alegia (1891: 13-39). Artxuren kasuan bezalatsu, baina oraingoan hainbat termino ulertzeko nahitaezkoa delakoan, adibide bakoitzean gaztelaniarazko bertsioa gehitu dut. Halaber, termino batzuen etorkia edo/eta etimologia jakiteko, oso baliagarria izan da Azkuek «Bigarren geigarria» atalean bildu zuen hitz berrien eta gutxi erabilien zerrenda (1891: 365-373), berak sortutako hitzak izartxo batez markatu zituelako. Kasuan-kasuan Azkuek gehigarri horretan dakarrena azalduko dugu.

(33) *aoskinde*:

- a. AOSKINDEA (aots-kinde-a = aotsen ikasmena) / PROSODIA (aots-kinde-a = de sonidos estudio el) (13)
- b. Aoskindeak oguzkeraan' *aotsak' egotaldiak' tonadaak* eta itzen *esageidaa* erakusten dautsaz entzumenari / La Prosodia en la pronunciación manifiesta al oído *sonidos, pausas, entonaciones y énfasis* de las palabras (28)

Aoskinde Azkuek sortutako hitza da (cf. *OEH*, s.v. *ahoskinde*), segur aski Larramendiren *oguzquindea* (1745: II, 201) eredutzat hartuta. Bigarren gehigarrian, Azkuek jesuita andoaindarrarekiko zorra aitortzen du: «**Aoskinde*. Prosodia: de *aots* = sonido y *kinde* = terminación empleada por Larramendi para indicar *tratado, ciencia...*» (1891: 366).

(34) *oguzi*:

- a. «itzak zelan-oguzi erakusten dauen izkinde-atala» dai / es «la parte gramatical que manifiesta cómo deben pronunciarse las palabras» (13)
- b. Itzak piloan oguzteko / para pronunciar las palabras en conjunto (13)
- c. *A E I O U B D K L M N P R Rr S ta T* gaztelarrak legez oguzten dauguz / *A E I O U B D K L M N P R Rr S y T* solemos pronunciar como los castellanos (13)
- d. Españarren *guerra* ta *guitarra*' euskaraz *gerra* ta *gitarra* esanaz oguziko litzakez / *Guerra y guitarra* de los españoles se pronunciarían en euskera diciendo *gerra* y *gitarra* (14)
- e. Bidasoa ibaitik onantzko euskaldunak ezdaue [*H*] aots au oguzten: aranzkoak bai / Los bascongados de aqueude el río Bidasoa no pronuncian este sonido [*H*]: los de allende sí (17)

Oraingoan ere, bistan da, iturria Larramendiren hiztegia dugu (cf. 8. oin-oharra). Bigarren gehigarrian Azkuek halaxe azaltzen du: «OGUZI. (Larram.) Pronunciar» (1891: 372). Hala ere, hurrengo bi terminoak Azkuek berak *oguzi*-tik abiatuak sortutako eratorriak lirakeke (cf. 14. oin-oharra):

(35) *oguzmen*:

- a. *Ź* ta *Ŝ* bardin samarrak daiz, ta Franziaiko *ch*-k langotse oguzmena daukate / *Ź* y *Ŝ*. Son casi iguales, y tienen la misma pronunciación que *ch* francesa (14)
- b. *J*. *J* gaztelarrak langotse oguzmena dauka / *J*. Tiene la misma pronunciación que *j* castellana (14)

(36) *oguzkera*:

- a. Euren oguzkeraa / Su pronunciación (23)
- b. *hiato* esaten iakan oguzkera tšarrik bere ezdago eurotan / ni hay en ellas defectuosa pronunciación llamada *hiato* (23)
- c. Esaldien oguzkeraa / Pronunciación de oraciones (27)
- d. oguzkeraan / en la pronunciación (28)

(37) *izkai*:

- a. Itzak' izkaiakaz eta aotsakaz eratuten daiz / Las palabras se forman de sílabas y de sonidos (13)
- b. Euskal-izkaiak' aots bat edo bi edo iru edo lau eratu doaz / Las sílabas eúskaras suelen formarse de uno ó dos ó tres ó cuatro sonidos (20)
- c. Aots bateko izkaiak / Sílabas de un sonido (20)
- d. «Ustea adierazoteko balio dauen aotsa edo aos-piloa' izkai edo izkai-piloa dai Itza» / Palabra es «el sonido ó conjunto de sonidos, sílaba ó conjunto de sílabas que sirven para manifestar la idea» (22)
- e. Izkai banako itzak' ezdauke zer-sendotu ta zer-makaldu ta ezin sendogarririk euki daikee / Las palabras monosilábicas, como que no tienen qué reforzar y qué debilitar, no pueden tener acento (25)

Berriz ere Azkuek sortutako hitza dugu *izkai* (cf. *OEH*, s.v. *hizkai*), *hitz* + *gai* osagaiez sortu ere: «**Izkai*, sílaba (elemento de palabra)» (1891: 371).¹⁶

(38) *aots*:

- a. augaitik' Aoskindea ondo ikasteko' lenengo aotsak' gero izkaiak eta atzenez itzak astertu doaz / por lo cual para estudiar bien la Prosodia suelen examinarse primero los sonidos, luego las sílabas y por último las palabras (13)
- b. *Aotsa* (ao-ots-a = aoko zarataa) «etzarri otsan eztidura» dai / *Sonido* (ao-ots-a = de boca ruido el) es «endulzamiento (modulación) de la voz» (13)
- c. nonbaiteko aotsak / sonidos particulares (18)
- d. Aots-marrak edo izkiraak / Signos de sonidos o letras (28)

Larramendik *abots* dakar, eta haren etimologia ere azaltzen du (< *aho* + *hots*):

Voz, *bozá*, *aozquidá*. Lat. Vox, cis. El Latín, y Romance vienen de el Bascuence *boza*, cuya raíz ez *aboaz*, que significa con la boca, y es la que forma la voz propriamente á diferencia de los demás sonidos; y también pudo decirse de *abots*, sonido de la boca. (1745: 379)

Azkuek hitza bere modura egokitzen bide du, nahiz eta bigarren gehigarriko hitzerrendan berak sortutakotzat markatzen duen «*AOTS. Sonido (*Ao-ots* = de boca ruido)» (1891: 366).

(39) *etzarri-ots*:

- a. etzarri otsan / de la voz (13)
- b. Etzarri-otsa gure arnasa kanporantzkoak etzarrian egiten dauen zarataai esaten dakio / Voz se le llama al ruido que produce en la laringe nuestro aliento de espiración (13)

¹⁶ Larramendik *hizgai* dakar, baina beste esanahi batekin: «Assunto, *gaya*, *hizgaya*, *jolasgaya*, *chedea*» (1745: I, 108).

(40) *eztidura*: *eztidura* / endulzamiento (modulación) (13)

Ez dago argi nondik har edo non ikas zezakeen Azkuek termino hori. *OEH*ren arabera (s.v.), *eztidura* Pouvreauren hiztegian («Adoucissement») eta, handik hartua, Duvoisinenean agertzen da lehenago; alabaina *Izkindea* ondu zuenerako Azkuek ez zituen oraindik bi hiztegi horiek ezagutzen (Azkue 1905-1906: xiii).

(41) *egotaldi*:

- a. egotaldiak / pausas (13)
- b. arnasa artuta zelango *egotaldia* egin / qué *pausa* debe hacerse al tomar aliento (27)
- c. Egotaldi-marraak / Signos de pausa (28)
- d. Itzaldiko arnasa-uneai' *egotaldiak* esaten iake / A los trechos de aliento (que tiene el) del discurso se les llama *pausas* (34)

*OEH*k (s.v. *egotaldi*) Azkueren lekukotasuna baizik ez dakar «Pausa» adieraren azpian. Hala ere, bigarren gehigarrian Azkuek ez zuen *egotaldi* hitza berak sortutakotzat markatu (1891: 368).

(42) *tonada*:

- a. tonadaak / entonaciones (13)
- b. Bezte izkai biak ezdauez laziotarrak eta gaztelarrak *tonada* bardinean oguzten; guk bai / Las otras dos sílabas no las pronuncian en la misma entonación los latinos y castellanos; nosotros sí (25)
- c. zelango *tonadan* itzak oguzi / en qué *entonación* se han de pronunciar las palabras (27)
- d. Tonada marraak / Signos de entonación (28)
- e. Marra onei dagoken tonadaa neurtutea ezdai gauza erraza / No es cosa fácil medir la entonación que corresponde á estos signos (36)

*OEH*k (s.v. *tonada*) ez dakar *Izkindearen* lekukotasunik, ezta oro har 'entonación' adiera ere. Hala eta guztiz, Azkuek askok erabilitako hitza dela diosku: «*Tonada* askok esaten daue. Beste itzik ezdazaut / Muchos dicen *tonada* (entonación). No conozco otra palabra» (1891: 25). Larramendik *tono* sarreran eman zuen, baina beste adiera batekin: «Tono, tonada, *ocasta*, *tonua*, *tonada*. Lat. Cantio, modulatio» (1745: II, 333); hots, kantu baterako bertsoak edo koplak.¹⁷

(43) *esageida*:

- a. esageidaa / énfasis (13)
- b. eta itzen *esageidaa* / y su *énfasis* (27)
- c. Esageida-marrak / Signos de énfasis (28)
- d. *Tak-erreskadaa*. Marratšo au' esageida-marratzat bere oituten dai / *Puntos suspensivos*. Este signo suele también emplearse como signo enfático (34)

*OEH*k ez dakar. Azkuek Larramendiri hartu zion hitza, bigarren gehigarrian airtzen duenez: «*Esageida* (Larram.), énfasis» (1891: 369).¹⁸

¹⁷ Cf. *DAut*, s.v. *tono*: «Se llama tambien la canción métrica para la Música compuesta de varias coplas. Lat. *Modulatio. Cantio*»; eta s.v. *tonada*: «Composicion métrica, à propósito para cantarse. Viene de la palabra Tono. Lat. *Compositio metrica pro cantu. Cantio*».

¹⁸ Cf. Larramendiren sarrera: «Emphasis, *esageida*» (1745: I, 311).

- (44) *(aots) edegi*:
 - a. edegiak = abiertos (vocales) (14)
 - b. *i* ta bezte aots edegi-ar-tean / entre *I* y otros sonidos vocales (19)
 - c. aots edegi-aurrean / antes de sonidos vocales (19)
 - d. Aots edegi bik izkaia eraturteko' gitsienez batek makala izan bear dau / Para que dos sonidos abiertos (vocales) formen sílaba cuando menos uno debe ser débil (20)
 - e. *I* aots edegi aurrean edo ostean' berez bigunduten dai / *I* por su misma naturaleza se suaviza antes o después de vocal (32)

- (45) *(aots) itxi*:
 - a. itxiak = cerrados (consonantes) (14)
 - b. Aots itxi batek ezin izkairik eratu daike / Un sonido cerrado (consonante) no puede formar sílaba (20)
 - c. Aots itxi bat ezin osteratu leike / No se puede duplicar un sonido cerrado o consonante (23)
 - d. aots itxi baten aurrean / antes de un sonido cerrado o consonante (33)

OEHK (s.v. *ahots*) *ahots ireki* «Vocal» eta *ahots itxi* «Consonante» azpissarrerak dakartza, eta *Izkindeako* adibide bana ematen du. Ez dut aurkitu ea Azkuek beste autore bati hartu zion bokalei eta kontsonantei deitzeko era hori, ala menturaz Azkueren beraren asmakizuna izan zen. Azken aukera balitz, dena den, Azkuek ez du hala aitortzen bigarren gehigarrian, ez baitu *Aots edegiak eta itxiak* azpissarrera izartxo batez markatzen (1891: 366).

- (46) *indar*: indarrez = por intensidad (14)
- (47) *sendo*:
 - a. sendoak = fuertes (14)
 - b. edegi sendoren bat / algún abierto fuerte (16)
 - c. *J* z baino askoz sendoagoa dai / *J* es mucho más fuerte que *z* (17)
- (48) *makal*:
 - a. makalak = débiles (14)
 - b. *I* ta *U* (aots edegi makalak) / *I* y *U* (sonidos abiertos débiles) (16)
- (49) *ezpaneko*: ezpanekoak = labiales (14)
- (50) *min ta agin arteko*: min ta agin artekoak = denti-linguales (14)
- (51) *min ta ao-sabai arteko*: min ta ao-sabai artekoak = linguo-palatales (14)

12. Ona edonongo aotsen atalkera bat.		12. Hé aquí un cuadro de los sonidos comunes.																																								
EDONONGO AOTSAK. =SONIDOS COMUNES	<table border="0"> <tr> <td rowspan="2" style="font-size: 2em; vertical-align: middle;">{</td> <td>Edegiak = abiertos (vocales).....</td> <td>Indarrez = por intensidad.....</td> <td>in-</td> <td>Sendoak = fuertes.....</td> <td>a e o.</td> </tr> <tr> <td>Itxiak = cerrados (consonantes)...</td> <td>tensidad.....</td> <td></td> <td>Makalak = débiles.....</td> <td>i u.</td> </tr> <tr> <td rowspan="2" style="font-size: 2em; vertical-align: middle;">{</td> <td rowspan="2"></td> <td rowspan="2"></td> <td rowspan="2">in-</td> <td>Sendoak = fuertes.....</td> <td>p t s z ts k rr</td> </tr> <tr> <td>tensidad.....</td> <td>Makalak = débiles.....</td> <td>b d ts g r m n l</td> </tr> <tr> <td rowspan="4" style="font-size: 2em; vertical-align: middle;">{</td> <td rowspan="4"></td> <td rowspan="4"></td> <td rowspan="4">ori-</td> <td>Ezpanekoak = labiales.....</td> <td>b m p.</td> </tr> <tr> <td>Min ta agin artekoak = denti-linguales.....</td> <td>d t z e ts.</td> </tr> <tr> <td>Min ta ao-sabai-arte-koak = linguo-palatales.....</td> <td>l n r rr.</td> </tr> <tr> <td>Min-erdian = en el medio... ts.</td> <td></td> </tr> <tr> <td rowspan="2" style="font-size: 2em; vertical-align: middle;">{</td> <td rowspan="2"></td> <td rowspan="2"></td> <td rowspan="2">ori-</td> <td>Min-erdian = en el medio... ts.</td> <td></td> </tr> <tr> <td>Min-sustraian = en la raíz... g k.</td> <td></td> </tr> </table>	{	Edegiak = abiertos (vocales).....	Indarrez = por intensidad.....	in-	Sendoak = fuertes.....	a e o.	Itxiak = cerrados (consonantes)...	tensidad.....		Makalak = débiles.....	i u.	{			in-	Sendoak = fuertes.....	p t s z ts k rr	tensidad.....	Makalak = débiles.....	b d ts g r m n l	{			ori-	Ezpanekoak = labiales.....	b m p.	Min ta agin artekoak = denti-linguales.....	d t z e ts.	Min ta ao-sabai-arte-koak = linguo-palatales.....	l n r rr.	Min-erdian = en el medio... ts.		{			ori-	Min-erdian = en el medio... ts.		Min-sustraian = en la raíz... g k.		
{	Edegiak = abiertos (vocales).....		Indarrez = por intensidad.....	in-	Sendoak = fuertes.....	a e o.																																				
	Itxiak = cerrados (consonantes)...	tensidad.....		Makalak = débiles.....	i u.																																					
{			in-	Sendoak = fuertes.....	p t s z ts k rr																																					
				tensidad.....	Makalak = débiles.....	b d ts g r m n l																																				
{			ori-	Ezpanekoak = labiales.....	b m p.																																					
				Min ta agin artekoak = denti-linguales.....	d t z e ts.																																					
				Min ta ao-sabai-arte-koak = linguo-palatales.....	l n r rr.																																					
				Min-erdian = en el medio... ts.																																						
{			ori-	Min-erdian = en el medio... ts.																																						
				Min-sustraian = en la raíz... g k.																																						

1. irudia

Edonongo aotsen atalkera / cuadro de los sonidos comunes (Azkue 1891: 14)

Azkuek ez ditu bokal eta kontsonante mota horien guztien terminoak berak sortutakotzat hartzen, ziuurrenik den-denak euskal hitz zahar gardenez osatuta daudelako. *OEHk* (s.v. *ezpaineko*) ez dakar Azkueren hemengo adiera linguistikoa, baina beste sarrera batean (s.v. *ahosabai*, AHOSABAIKO) ematen duen Miranderen adibide batean adiera horrekin agertzen da.

(52) *biki*:

- a. Onelan batuten daizan aotsai' *bikiak* esaten iake / Á los sonidos que de esta manera se unen llámeseles *diptongos* (20)
- b. Gaurko euskal-neurtitzak' erderazko legeakaz eratuta dagoz-ta' euskal-*bikit*zat erderazko biki arageak ezautu dauez / Los versos eúskaros de hoy, como que están formados con leyes extrañas, han reconocido por *diptongos* eúskaros diptongos irregulares de otras lenguas (21)
- c. Ona emen euskal-bikiak / Hé aquí los diptongos eúskaros (21)
- d. Lenengo lau bikiak (eta lau oartuak) aurretik aots itši bat daukenean' banatuta oguzten daiz, edo bikitu bage / Los cuatro primeros diptongos (y los cuatro anotados) cuando tienen por delante un sonido cerrado (consonante) se pronuncian separados, o sin diptongarse (21)

(53) *bikitu*:

- a. *i* bikituan ordez / en sustitución de *i* diptongado (15)
- b. bikituta / diptongados (16)
- c. *I* bikitua / *I* diptongado (16)
- d. *A e* ta *o* ezin alkarrez bikitu leikez' sendoak diralako / *A e o* no pueden entre sí diptongarse por ser fuertes (20)
- e. bikitu gabe / sin diptongarse (21)

(54) *iruki*:

- a. Iru aots edegi' izkai baten oguzten daizanean' *irukiak* esaten iake / Cuando en una sílaba se pronuncian tres sonidos abiertos, se les llama *triptongos* (21)
- b. *Iai* edo *Iau* daiz nik dauzatazan irukiak / *Iai* ó *Iau* son los triptongos que yo conozco (22)

Bigarren gehigarrian Azkuek berak asmatutakotzat markatzen du *biki* terminoa: «BIKIAK. Mellizos, gemelos; por extensión, *diptongos» (1891: 367). Ez du *iruki* berdin markatzen, baina pentsatu beharko genuke hari adiera linguistikoa ematea ere berak asmatu zuela: «IRUKIAK. Tres componentes de uno, triptongos» (1891: 370).

- (55) *bigungarri*: sarri *a* bigungarritzat artu daroa / muchas veces suele recibir *a* por (sonido) eufónico (16)

OEHk «Suavizador, eufónico» adierak dakartza (s.v. *bigungarri* 5), Azkueren hiztegitik hartuak. Nolanahi ere, bigarren gehigarrian Azkuek adiera berberak eman zituen, bigarrena izartxo batez markatua: «*Bigungarri*, suavizador, *eufónico» (1891: 367).

- (56) *buztile*: *i* buztiletik / del (sonido) mojador *i* (17)

(57) *buzti*:

- a. Lenengo aotsak *I*-z buztita dagoz / Los primeros sonidos están mojados con *I* (19)
- b. Minaz eratuten daizan aots batzuk (*z d l n s t ta tz edo ts*)' *i*-n ostean oguzi-ez gero' buztita urteten daiz sarri euskaldunen aotik / Pronunciándose tras *I* algunos sonidos formados en la lengua (*z d l n s t y tz ó ts*) salen frecuentemente mojados de boca de los bascongados (19)
- c. aots buzti onek / estos sonidos mojados (20)
- d. Oraintsu azierako aotsak buztiten azi daiz Donosti-aldekoak —*soso* esareko *šošō*— / Recientemente han empezado á mojar sonidos iniciales los de las cercanías de San Sebastián — *šošō* en vez de decir *soso* = tordo— (20)
- e. Aots buztien izkiraak: *z̃ d̃ d̃s̃ l̃ ñ s̃ t̃* / Letras de sonidos mojados: *z̃ d̃ d̃s̃ l̃ ñ s̃ t̃* (31)

OEHk (s.v. *busti*) «Palatalizar(se)» adiera dakar, eta *Izkindeako* bi adibide ematen ditu. Hala ere, Azkueri ez bide zitzaion hitz berria zela iruditu eta, ondorioz, *buzti* ez da agertzen bigarren eta hirugarren gehigarrietan. Nire iritziz, *OEHn bustile* hitzak (ziurrenik, hapax bat) oso sarrera nahasgarria du eta, aukeran, mereziko luke (56) adibidea aintzat hartuta moldatzea.

(58) *zarata-itx*:

- a. zarata-itzetan / en las palabras de ruido (onomatópicas) (21)
- b. eta daukazan geienak *zarata-itzak* edo *ume-izkerakoak* daiz / y la mayor parte de las que tiene son *onomatópicas* o del *lenguaje infantil* (23)
- c. *Zarata-itzetan* egoteak' izkeraa edertuten dau / Él que haya en las palabras onomatópicas hermosea la lengua (23)
- d. Zarata-itx batzuk / Algunas palabras onomatópicas (24)

OEHk ez dakar hitz elkartu hori eta bigarren gehigarrian Azkuek ez du berak sortutakotzat markatzen: «ZARATA-ITZ. Palabra onomatópica, lit. *de ruido*» (1891: 368). Hortaz, litekeena da zein zen ez dakigun iturri batetik hartua izatea edo, seguruago, beste batzuetan bezala Azkuek ez zuela berak sortutako terminotzat hartu, hitz elkartuaren bi osagaiak euskal hitz gardenak direlako.

(59) *biortu*:

- a. Diarteak biorturiko itz batzuk / algunas palabras contraídas por el vulgo (21)
- b. Ezdago, bada, itz onek eta onelangoak biortu bearrik / No hay, pues, necesidad de contraer estas o semejantes palabras (23)
- c. Bezte izkera batzuetan' goiko arrastaz¹⁹ *itz biortuak* iragarten daiz / En algunas otras lenguas con la coma superior se representan las *palabras contraídas* (36)
- d. Euskaraz itz biortu asko dagoz / En eúskara hay muchas palabras contraídas (36)

¹⁹ Cf. Azkueren oin-oharra: «*Apóstrofe* esaten dautse erdaldunak olango marrai / A signos de esta naturaleza los extraños llaman *apóstrofe*» (1891: 36).

OEĤk (s.v. *bihurtu*) ez dakar ‘contraer’ adiera. Bestalde, Azkuek bigarren gehigarrian ez du adiera hori izartxo batez markatzen, beharbada ez duelako adiera linguistikotzat hartzen: «BIORTU. Exprimir, estrujar; por extensión contraer resumir» (1891: 367); aldiz, ikus bedi gorago nola jokatu zuen bigarren gehigarrian *biki* hitzak duen sarreran.

- (60) *hiato*: *hiato* esaten iakan oguzkera t̄sarrrik bere ezdago eurotan / ni hay en ellas defectuosa pronunciación llamada *hiato* (23)

OEĤk ez dakar *hiato* hitza. *Izkindeako* horixe da aurkitu dudan lehenengo ageraldia.

- (61) *sendogarri*:
- Euren oguzkeraa, ta onetarako *sendogarria* / Su pronunciación y para esto el *acento* (22)
 - Itzak zelan-oguzi iakiteko’ *sendogarria* astertu bear dai / Para saber cómo pronunciar las palabras debe examinarse el *acento* (25)
 - Sendogarria²⁰ «itza ondo oguzteko’ izkai bati emoten iakan berezko indarra» dai / Acento es «el esfuerzo natural que se da á una sílaba para pronunciar bien la palabra» (25)
 - Euskal itzak sendogarria dauke bada / Tienen, pues, acento las palabras éuskaras (25)
 - Gure sendogarriak ez dauka gaurko izkeraak daukezanen antzik / Nuestro acento no se asemeja á los que tienen las lenguas de hoy (25)
 - Sendogarridun itzak’ izkai bi gitsienez euki bear daue / Las palabras acentuadas deben tener cuando menos dos sílabas (26)
- (62) *sendotu*:
- lenengo *a* dai iruretan aots sendotua / el primer *a* es en los tres el sonido acentuado (25)
 - luzetu ta sendotuta oguzten daina / la que se pronuncia prolongada y acentuada (26)
 - itz onek’ iruna izkai daukez sendotuta / estas palabras tienen cada una á tres sílabas acentuadas (26)
 - urruneko bati itz egiten iakanean eta suminduta itz egiten dain geiengan’ atzenengo izkaia sendotuten dai / cuando se habla á un lejano y casi siempre que se habla enardecido en cólera se acentúa la última sílaba (27)
 - bigarren *a* ez dai sendotuten / el segundo *a* no se acentúa (39)

OEĤk (s.v. *sendogarri*) «Acento» adiera dakar, eta *Izkindeako* adibide bat ematen du, Erkiagaren beste batekin batera. Aldiz, *sendotu* sarreran ez du ‘acentuar’ adiera jaso. Nahiz eta prosodiari buruzko atal guztian zehar *sendogarri* erabili,²¹ bigarren gehigarrian Azkuek *sendatu* eta *sendagarria* aldaerak hobesten ditu, eta *sendatu*-ren kasuan ez du zuzenean ‘acentuar’ adiera aipatzen: «SENDATU. Fortalecer, confirmar

²⁰ Cf. Azkueren oin-oharra: «Asterrenez itz onek *sendotasuna* erakarten dauen gauzaa esan gura dau / Etimológicamente la palabra *sendogarri* (acento) significa *cosa que atrae firmeza*» (1891: 25).

²¹ Oker ez banago, *sendagarri* amaierako aurkibidean baizik ez du erabiltzen.

o afirmar (hacer firme), intender o dar intensidad. **Sendagarri*, intensivo, acento prosódico» (1891: 372-373). Gorago aipatutako adibideetatik eta bigarren gehigarriko sarreratik ondorioztatzen denez, Azkueren *sendogarri* azentu prosodikoari dagokio; aldiz, azentu grafikoa izendatzeko *ezaugarri* terminoa baliatzen du: «El signo cognoscitivo (accento ortográfico)» (1891: 38).

(63) *gogor*:

a. *R* gogorra / *R* fuerte (22)

b. *R* gogorra aots edegi artean dagonean' *rr* izkiratuten daue geienak / Cuando *r* fuerte está entre sonidos abiertos, la mayor parte suelen escribir *rr* (33)

(64) *bigun*:

a. *r* biguna / *r* suave (23)

b. *R* bigunak ezin itzik ez izkairik amaitu daike, ta *r* gogorra' itzen amaieran eta izkaien atzanean (edo aots it̄i baten aurrean) *r* batez iragarri leike / *R* suave no puede terminar palabras ni sílabas, por consiguiente *r* fuerte puede representarse con una *r* en la terminación de palabras y fin de sílabas (ó antes de un sonido cerrado ó consonante) (33)

Laburbilduz, *Euskal Izkindean* Azkuek euskarazko terminologia linguistikoa nabarmenki handitu eta aberastu zuen. Horretarako, batetik, Larramendiren hiztegia era desberdinez baliatu zuen eta, bestetik, Azkuek berak hainbat hitz sortu zituen edo adiera terminologiko berria eman zien. Horren arabera, lan honetan erabili dudana laginean, honelaxe sailka ditzakegu fonetika-fonologiekien lotutako terminoak:

— Larramendiri zuzenean edo zeharka hartutako hitzak: *oguzi*, *oguzmen*, *oguzkera*, *aots*, *esageida*.

— Azkueren hitz eta adiera berriak: *aoskinde*, *izkai*, *biki*, *bikitu*, *iruki*, *bigungarri*, *buzti*, *buztile*, *sendotu*, *sendogarri*.

— Iturri ezezagunekoak: *eztidura*, *egotaldi*, *tonada*, *zarata-itz*.

3.9. Ormetxe (1896, 1897)

Pedro Antonio Ormetxek *Agakia* izeneko silabarioaren bi argitaraldi kaleratu zituen, haurrei dotrina euskaraz ulertzen laguntzeko asmoz (Dávila & Erriondo 2012: 18): 13 orrialdeko labur-labur bat 1896an, lehenik, eta —«zerbait gehituta» baino gehiago— luzeago bat 1897an geroago. Bietan aurkitu ditugun termino bakanak argitaraldi bakoitzaren sarreran daude.

(65) *betxia*, *agotar*, *agobarruko*, *agintar*, *ezpaneko*:

a. baña izan da agoataz itxi edegi gitxiago egitiañen, emetik egotia lelengo, betxia agotañak, gero agobañukoak, agintañak eta ezpanekoak (1896: 3)

(66) *betxia*:

a. ezango deutzut emen, zelan irakufi betxiak, geibetxiak eta zertarako dan beste uste gustia (1897: 3)

b. estabe eukiko beñtan estagoan betxiarik (1897: 4)

- c. eta betxia ofek premiña osoakoak dira euskeras irakurten ikesteko (1897: 5)
- d. Len aifetuteko betxia batzuk, estira irasten, itzen asieran (1897: 6)
- e. Betxie. Arako norberak egiten daben agirija, beste bera lako batzukiñ batus irasteko itzak. Letrie (1897: 63)
- (67) *agotar*:
- a. Aúfenengo dagos betxia *agotařak* eta dira *a, e, i, o, u* (1897: 4)
- b. Bigařen irakurřeijan erakusten da, zelan alkařeganduten dirian betxia *agotařak* (1897: 6)
- (68) *agobarruko*: gero dagos *agobařukoak* eta dira *g, k, j, j, n, ñ, l, l̄, x, s, s̄, r, r̄, d̄, ĩ, tx, ts, tz* (1897: 4)
- (69) *ogusittu*:
- a. ipiñi diran itzak ogusiřu edo ezaten dozusenian (1897: 6)
- b. Oğusiřu. Isilik edo zarataka betxia edo itzak ezatia. Pronunzieu (1897: 62)
- (70) *agiñttar*: *Agiñtařak* dira *d*, eta *t*, eta ipiñi dodas agobařukoen tařtian (1897: 6)
- (71) *espaneko*: Atzarian dagos *b, p*, eta *m*, *espanekoak* (1897: 6)
- (72) *oskide*:
- a. Uřengo lau zatijetan erakusten da, zelan betxia agotařak batzanduten dirian oskideakas (1897: 7)
- b. Oskidea. Betxia agotařakas lagunduten dirian beste betxiak. Konsonante (1897: 63)
- (73) *geibetxia*:
- a. eta beřtatik dagozan beste lauretan, zelan geibetxiak dagozan itzetan (1897: 7)
- b. Ara emen baxotxa beries geibetxia ofek dagozan irakurřeijak eta gero, eurrek daukezan itzak (1897: 7)
- c. Geibetxia. Oskidea eta betxia agotařak batera jařtia. Silabie (1897: 63)

Nahiz eta Ormetxek sistema grafiko aranatarra erabili, lexikoari dagokionez hitz berri larramenditarrak aurkitzen ditugu gehienbat. Gainera, irudi luke Ormetxek hitz batzuk bederen *Hiztegi Hirukoitzean* bertan ezagutu zituela; horrela azal liteke *betxia* eta *geibetxia* hitzek dakarten amaierako *-a* bokala, bitarteko iturriren bat agertzen ez den bitartean (ik. 7. eta 12. oin-oharrak, hurrenez hurren). Larramendirenak dira, halaber, *ogusittu* eta *oskide* (ik. 8. eta 9. oin-oharrak, hurrenez hurren).

Aldiz, *agotar*, *agobarruko* eta *agintar* terminoak ez ditut beste inon aurkitu.²² Azkenik, *espaneko* Azkuek erabili zuen, ikusi dugunez (cf. § 3.8).

²² Litekeena da *agotar* terminoa Larramendiren hiztegioko *vocal* sarreran oinarrituta egotea, bai baina ez letra-motari dagokion sarreran, haren aurretik dagoen beste honetan baizik: «Vocal, que pertenece à la voz, boztarra, aosdarra» (1745: II, 377); cf. 9. oin-oharra. Iturri berbera iradokitzen bide du Pagolak *gedin* sarrerari eransten dion 2. oin-oharrean (2005: 172).

3.10. Arana Goiri (1897)

Azkueren ondoren, Sabino Arana dugu fonetika-fonologiekin lotutako hitz berrien hurrengo sorta luzearen egilea. Artikulu honetan *Umiaren lenengo aizkidia* (1897) kartilla aztertu dugu, bertan Aranak euskaraz laburtu zuelako urte batzuk lehenago batez ere *Pliegos Euskeráfilos* (1888) eta *Lecciones de ortografía* (1896) liburuetan aurkeztu zituen euskal sistema grafikoari eta fonologikoari buruzko ideiak eta, beraz, kartilla hartan eman zituelako aipatu gaiei dagozkien euskarazko terminoak.

Aranaren hitz berrien gorabeherak ulertzeko, oso baliagarriak gertatu zaizkit Inés Pagolaren tesia (2005)²³ eta Aranak berak liburuxkaren amaieran erantsi zuen «Ingurti onek daukazan itz bañijak» izeneko hitz-zerrenda (1897: 76-80); zerrenda bost zutabetan antolatuta dago: «Itxak», «Soñkunak» ('jatorriak'), «Ikuñpenak» ('esahiak'), eta frantsesezko eta gaztelaniazko «Izkelbijakixuna» ('itzulpena'). Aranaren liburuxkan aurkitu ditudan termino guzti-guztiak berak asmatuak dira eta, Pagolaren arabera (2005: s.vv.) eta salbuespen pare batekin, lan hartan baizik ez zituen erabili:

(74) *izki*:

- a. *Izkija* da *itz-ki*, itxaren zatirik txikijena (7)
- b. *izki-ikuñak* – *izki-aboskeak* – *izki-ixenak* (8)

Hurrengoak ez bezala, hitz berri hori erruz baliatu zuen Aranak, eta arrakasta nahikoa izan zuen (Pagola 2005: 232), beheago ikusiko ditugun Eguzkitza (1919-1920a-c, 1924) eta Zabala Arana (1924) adibide (cf. §§ 3.14.2, 3.15 eta 3.16). Amaierako hitz-zerrendan hauxe dator: «izki / itz-ki / letra / lettre / letra» (1897: 79).

(75) *izkin*:

- a. *Izkiña* da *itz-gin*, itxa egiten dauna (8)
- b. Zeintzuk diran euzkera bizkañaren izkiñak ataretan da izkijen inarkun edo puntziñoietatik (10)
- c. Emen erakutsiko dautzudaz bakafik izkin-mota gustijak (10)

Amaierako hitz-zerrendan hauxe dator: «izkin / itz-gin / - / syllabe / sílaba» (1897: 79).

(76) *izpijakera*:

- a. Irzati honetan iru gai dagoz: *Agakea*, *Izkindegija* ta *Izpijakerea* (7)
- b. *Izpijakerea* da *izpijau-erea*, itxak, erabijetako, aften dabezan ereak (8)

Amaierako hitz-zerrendan hauxe dator: «Izpijakera / izpijau-era / - / Fonetique / Fonética» (1897: 79). Pagolak (2005: 236) dio aranatarrek aski maiz erabili zutela.

(77) *izpijau*:

- a. *Izpijau* dator *itz-bijau* tik eta onek ikuñtzen dau *itz-erabijau* (8)

Pagolak (2005: 237) ez du goiko adibidea jaso; ordea, *izpijau* sarreran *izpi(a)* terminoari legokiokeen adibide bat ematen du, eta *OEHk* errepikatzen (s.v. *izpiatu*):

²³ Pagolaren lanak, sarrera bakoitzean, Aranaren aurretik eta ondotik erabili ziren beste hainbat termino aipatzen ditu: Larramendirenak, Lore Jokuetakoak, Azkuerenak, Ormetxerenak, Arriandiagarenak, etab. Artikulu honen espazio-muga dela eta ez ditugu denak hemen aintzat hartu.

«Irazti onetan darakuskuzan izpijetako lagijak. (1897). AG 1019». Amaierako hitz-zerrendan hauxe dator: «izpijau / itz-bijau / itz-erabijau / transformer les vocables / transformar las voces» (1897: 79).

(78) *izpi(a)*:

- a. ¿Zeintzuk dira euzkera bizkañaren *izpijak*? ¿Zeintzuk, *izkiñak*? ¿Zeintzuk, irazti onetan darakuskuzan *izpijetako* lagijak? (8)
- b. I.— *Izpijak*. Ara-emen euskera bizkañaren *Agakea* (8)
- c. *Izpija-lagijak* dira: ala *biañezkuak*, ala *gurazkuak* (10)
- d. XXVII^k eta XXXVIII^a rañoko jañaliak daukez *biañezko* izpija-lagijak, eta XXIII, XXIV eta XXV^k gurazkuak (12)

Pagolak (2005: 234) *izpi* lematizatzen du, baina, azken bi adibideak ikusita, egiantzekoagoa dirudi lema *izpia* dela pentsatzea, *OEHk* bezala (s.v.). Aranak ez dakar amaierako hitz-zerrendan eta ez du beste inon hitz berri horri buruzko azalpenik ematen.

(79) *gedin*:

- a. Ogetamalu izki onek enda biñan biñintzen dira: *gediñak* eta *igidiñak* (9)
- b. *Gediñak* egiten dira abua geldi egonaz (9)
- c. *V-gediña* da euzkera aunararena bakarrik (9)²⁴

Amaierako hitz-zerrendan hauxe dator: «gedin / ge-din / - / voyelle / vocal» (1897: 77).

(80) *igidin*:

- a. eta *igidiñak* abuairen zatiren bat *igītubaz* (9)
- b. *Igidin* ekañak (9)


Amaierako hitz-zerrendan hauxe dator: «igidin / igi-(tu)-din / - / co[n]sonne / consonante» (1897: 79).

(81) *ekar, bazkar*:

- a. Enda bakotxaren izkijak biñintzen dira, eurek be, endaki biñan: *ekañak* eta *bazkañak* (9)
- b. *Ekañak* dira biñindu elēzezanak; eta *bazkañak*, biñindu lēzezanak (9)

Pagolaren arabera (2005: 71, 119), Aranak *ekar* ‘bakun’ eta *bazkar* ‘konposatu’ hitz berriak beti hots eta letrei buruz erabili zituen, eta soilik aztergai dugun liburuxkan. Amaierako hitz-zerrendan hauxe dator: «ekañ / eka-añ / - / simple / simple» (1897: 78) eta «bazkañ / batz-añ / - / composé, pas simple / compuesto» (1897: 80); oin-ohar batean ondokoa gehitzen du lehenaren etimologiaz: «*Eka* au da *amaeka*, *amaika*, *ameka*’tan dagona»; bigarrena ez du azaltzen, baina lehenengo osagaia *batz* ‘reunión, copia, colección’ litzateke (Pagola 2005: 71).

²⁴ Arana *V* horrek ekialdeko *ü* irudikatzen du; hots, «euzkera aunararena» (cf. Pagola 2005: 172). Euskara aunararen definizioaz, ik. Arana Goiri (1897: 72): «eta euzkelgi aunañ, [egiten da] Zibe-roan eta Beko Nabafan».



2. irudia

Bokal bakun eta bikoitzen eta kontsonante bakun eta bikoitzen zerrenda
(Arana Goiri 1897: 9)

(82) *aboska*:

- a. aboska *ekař* batzuz egiñak diralako (9)
- b. Agakatik kentzen doguz *ř* ta *c*-izkijak (aboska ta ikuřak), eztauzalako biař (9)
- c. euron aboskeak eta ixenak (9)
- d. *Š* en aboskea da *ř* ena, baña gogořagua (9)
- e. I ta II'an umiak ikasiko dabez izkijen aboskeak eta ikuřak (11)

Kartillatik kanpo Aranak beste behin bakarrik erabili bide zuen *aboska* hitza: «*Eta bertatik odeyan aboska batek esan eban* [Mt 17, 5]» (*apud* Pagola 2005: 13). Amaierako hitz-zerrendan hauxe dator: «aboska / abo-oska / abo-soñuba / voiz / voz» (1897: 77).

(83) *izkinbatun*, *izkimidun*, *iruizkindun*, *larizkindun*: XXIII, XXIV, XXV eta XXVI ikaskixunetan dagoz *izkibatun* itxak, *izkimidunak*, *iruizkindunak* eta *larizkindunak* (12)

OEHk ez dakartza *izkinbatun* eta *izkimidun*. Hala ere, lehena *hiruizkindun* sarre-rako adibidean agertzen da eta biak,²⁵ *larizkindun* sarreran; jakina, goiko adibide berbera da, hain zuzen ere.

Amaierako hitz-zerrendan sarrera hauexek datoz:

- «izkinbatun / izkin-bat-dun / izkin bat daukan itxa / monosyllabe / monosílabo» (1897: 79);
- «izkimidun / izkin-bi-dun / izkin bi daukazan itxa / bisyllabe / bisílabo» (1897: 79);
- «iruizkindun / iru-izkin-dun / iru izkin daukazan itxa / trisyllabe / trisílabo» (1897: 79);
- «larizkindun / lau-izkin-dun / lau izkin daukazan itxa / quadrisyllabe / cuadrisílabo» (1897: 78).

²⁵ Bigarrena, baina, *izkiñidun* forma okerrarekin, Arana Goiriren *Obras completasen* bezala (cf. Pagola 2005: 234).

3.11. Azkue (1897, 1898)

Lan honetarako, Azkuek *Euskalzale* aldizkarian argitaratu zituen bi artikulu aztertu ditut. *Izkindearekin* alderatuz gero, diferentzia nagusia da hitz berrien ondoan Azkuek bakoitzari dagokion mailegua idatzi ohi duela, hitz berriaren esanahia argitzeko. Gainontzekoan, 1891ko gramatikan erabili ez zituen termino eta aldaera batzuk aurkitu ditut eta horietatik soilik emango ditut jarraian:

(84) *abots*:

- Euskerazko abotsak (erderaz *sonidos orales*), bai edegi edo *bokalak* eta bai it̃si edo *konsonanteak*, bitarikoak dira, euren antz utsari begiratu-ezkero: *antzeakoak* eta *antz-bakoak* (1897: 361)
- Obeto adituteko ipiñi daiguzan abots guztiok lauki edo *kuadro* baten (1897: 361)
- Aditzen atzenengo abotsa onetatik bat izaten da beti: *a, e, i, o, l, n*, ta *u* (1897: 369)
- J*-k beren abotsa dauko: erderazko *jamelgo*-rena, esaterako (1898: 18)

Gorago (38) adibidean ikusi dugunez, *Izkindean* Azkuek *aots* terminoa hobetsi zuen, Larramendik sortutako *abots*-en ordean.

(85) *iraunkor, iraizeiko*:

- Abots it̃sien artean, euren irauteari begiratu-ezkero, batzuk dira *iraunkor*-*rrak*, besteak *iraizeokoak* (1897: 361)
- Iraunkor*ak, erderaz *duraderos*; *iraizeokoak*, erderaz *efimeros*. Berba bata ta beste au oituten dira (1897: 361, oh.)
- abots iraunkorrek (1898: 18)
- Abots iraizeokak (1898: 18)
- Sei dira abots iraizeokoak (erderaz *efimeros*): iru bigunak, *b, d, g*; ta iru gogorrek, *p, t, k* (1898: 18)

ABOTSAK	{	Edegiak	SENDOAK: <i>a, e, o</i> . MAKALAK: <i>i, u</i> .
		It̃siak	IRAUNKORRAK: <i>z, l, m, n, r, rr, s</i> ; ta <i>z̃,</i> <i>l̃, ñ</i> ta <i>ṣ</i> . IRAIZEKOAK: <i>b, d, g, p, t, k</i> ; ta <i>d̃</i> ta <i>ṭ</i> . BIETARIKOAK: <i>tz, ts, tṣ</i> ; ta <i>dz, ds</i> ta <i>dṣ</i> .

3. irudia

«Abotsen» sailkapena (Azkue 1897: 361)

Izkindean Azkuek *iraunkor* hitza erabiltzen du, baina, oker ez banago, inoiz ez kontsonanteen azpisail bat izendatzeko. *Iraizeko* ez du Bera eta Lopez Mendizabalen hiztegiak jasotzen (1916: s.v. *efimero*), baina bai lotuta bide dagoen *iraitzeiko* «transi-

torio, superficial» (1916: s.v). *OEHN*, s.v. *iragaitza*, biak aurkitzen ditugu, «Pasajero, efímero» adierekin.

(86) *mutu, erdi edegi*: Baita esaten iake *mutuak* (mudos) eta *erdi edegiak* (semi-vocales) bere (1897: 361, oh.)

(87) *biki*:

a. Abots bikiak dagoz, iraunkorra ta iraizekoa daukenak: *tz, ts, tš* ta *dz, ds* ta *dš* (1897: 361)

b. *Te*-ren aurreko abotsak *bikiak* direanean (au da, iraunkorra ta iraizekoa daukezanean), *i* ulduten da ta abots biki onek iraunkorra galdu ta iraizekoa eukiten dabe. *Iratzi+ten* = *irazten*; *eutsi+teko* = *eusteko*; *itši+tera* = *ištera* (1897: 369)

Izkindean Azkuek *biki* terminoa erabiltzen du, baina ‘diptongo’ adierazteko; *Euskalzaleko* artikuluan, berriz, ‘bikoitz’ edo esan nahi du (cf. *OEH*, s.v. *biki*).

(88) *ots*:

a. Onelango gertarietan *a* ta *e*-k, euren otsa galduta, *i*-rena artuten dabe (1897: 361)

b. Berba onetan legez abots bat birritan esatea, ume-izkeran da gauzen otsa adierazoteko oituten da (1897: 377)

Ez dago argiegi goiko bi adibideetan zein den *ots* terminoaren adiera zehatza. Nolanahi ere den, Azkueren ustez *ots* hitzak batik bat ‘zarata’ esan nahi zuen²⁶ eta oroit bedi, hemen ‘onomatopeia’ esan nahi bide duen *gauzen otsa* hitzen ordeztu, *Izkindean zarata-itx* erabili zuela (cf. (58) adibidea).

3.12. Garmendia (1911)

Aztertu dugun Garmendiaren artikulua laburrean, orain arte agertu ez zaizkigun zenbait termino ditugu, ziurrenik Garmendiak berak sortuak (*letra* izan ezik, noski). Hitz berri bakoitzaren lehen agerraldiarekin Garmendiak oin-ohar bat gehitzen du, terminoaren esanahia argitzeko. Garmendiaren artikuluko hitz eta adiera berriak ez daude *OEHN* jasota.

(89) *doñuletra*:

a. Segurako euskeran, aurretik doñuletra indargabea dutelarik (107)

b. luzatzen edo berriztatzen zayote oen bukaerako doñuletra (107)

c. eta esaerako indarra ematen diote azkeneko doñuletra bakarrean (109)

(90) *doñugabe*:

a. Orobat, letra berean bukatzen diran itzak, aurretik beste doñugabe bat dutela (107)

b. Modu berean, aurretik letra doñugabea dutela (108)

c. Baño au ez datorkite ongi izenak letra doñugabea bukatzean (109)

²⁶ Cf., esaterako, Azkue (1918: s.v. *sonido*): «SONIDO, ots. También soindú, soinu, sonu. = Como ots es propiamente ‘ruido’ es preferible valerse de durundi ‘resonancia’ para designar este concepto».

- (91) *letra*:
- indar agiria emanaz letra berean (107)
 - indar apartekoa ematen zayola itzari letra berean (108)
 - izenaren bukaerako letra luzatzen eta berriztatzen dute (109)
- (92) *osakin*:
- Bi osakin dituzten itzetan (108)
 - Iru osakiñeko itzetan ere (108)
 - Lau edo geyago osakiñ dituzten itzai, bi unetan edo osakiñetan indar agiria ematen dizate itzegitean (108)
- (93) *bikote*:
- Bikotean bukaera duten emakume ta gizasemen izenetan (108)
 - banatzen dute azkeneko osakiñaren bikotea (108)
 - ez eta bikotean bukatzen diranean (109)

Hauek dira Garmendiak oin-oharretan hitz berri bakoitzari ematen dion gaztelaniazko esanahia: *doñuletra* «Letra vocal», *doñugabe* «Consonante», *osakin* «Sílabas» eta *bikotean* «En diptongo».

3.13. Lertxundi Baztarrika (1913)

Lertxundi Baztarrikaren gramatikak batez ere aditz-jokoa azaltzeko helburua du, egileak berak hasierako oharpenean aitortu zuenez (1913: ix-xii). Hortaz, fonetika-fonologiekin lotutako termino gutxi aurkitu ditut. Bestalde, dela inprimategikoen axolagabekeriagatik, dela Lertxundiren beraren koherentzia ezagatik, termino batzuek forma bat baino gehiago erakusten dute, jarraian ikusiko dugunez.

- (94) *betxi*:
- lembizi betxiak ikasi bear dira / es menester primero saber las letras (1)
 - betxi batzuek, galdu, besteak nastu eta biurtzen dira / hay letras que se eliden, otras se modifican y algunas se convierten (1)
 - Ze betxi galtzen diran eta noiz / Las letras que se eliden y cuándo (1)
 - eta betxi bat galtzen bada / y [si] hay elisión de letra (14)
- (95) *betxao/betzao*:
- betxaoak / vocales (1)
 - Itzak alkartzean galtzen diran betxaoak dira / Las vocales que se eliden en la composición de palabras son (2)
 - bi betxaoen artean / entre vocales (2)
 - eta beste betxao baten aurrean / y ante otra vocal (3)
 - i beste betzao batekin topatzen danean / cuando la i se encuentra ante otra vocal (4)
 - betzao / vocal (10)
 - Azkena betxaozkoa badu itzak / Si la palabra termina en vocal (14)
 - betxao baten aurrean / ante vocal (315)
- (96) *batotzko/batoko*:
- batotzkoak / consonantes (1)

- b. Galtzen diran batozkoak dira / Las consonantes que se eliden son (2)
- c. batozko gogorrek / Las consonantes fuertes (3)
- d. Batozko bukaera itzak badauka / Si la palabra termina en consonante (14)
- e. Itza batozkoz bukatzen danean / Si la palabra termina en consonante (22)

Betxi eta *betxao* Larramendiren hiztegikoak dira, lehenago ikusi dugunez (cf. 7. eta 9. oin-oharrak, hurren hurren). Ordea, *batozko ez* dator *OEHN* eta ez dut hitza beste inon aurkitu.

(97) *soñu*:

- a. soñu batekoak dira betxi guztiak ta / pues las letras tienen un solo sonido (1)
- b. Soñu leguneko legeak / Leyes eufónicas (130)
- c. soñu onez / por razón de eufonía (140)
- d. Soñu oneko legeak / Leyes eufónicas (151)

(98) *nasgabetu*:

- a. Beterrikoak ez dituzte goyerritarrak bezela betxi batzuek nasgabetzen / Es verdad que los de la montaña no pronuncian lo mismo algunas letras (1)

Nasgabetu, bistan da, Larramendiren *nasbageturen* aldaera bat da (ik. 8. oin-oharra).

(99) *itzgai, itz zati*:

- a. Itzgayen artean erasten diran betxi leguntzalleak / Las eufónicas²⁷ que se les agregan (2)
- b. Beste batzuetan ere arkitzen dira itzgai itz zatiyak ere galtzen diran aldiak / También se dan otros muchos casos en que se eliden letras y hasta sílabas (3)
- c. aurreko itz zatiyaren betxiak biguñak badira / cuando la sílaba que precede á la *txi* es suave (289)

Gorago (cf. § 3.8) aipatu dugu Larramendik *hizgai* dakarrela, baina *asunto* sarrean dago. Litekeena da Azkueren *izkai*-tik Lertxundiren *itzgai*-ra bitartean, eta 'silaba' adiera duela, beste autoreren batek hitzaren aldaeraren bat erabili izana, baina ezin izan dut aurkitu eta ez dakit ziur, beraz, *itzgai* aldaera Lertxundik berak asmatu ote zuen ala ez.

Bestalde, *OEHK*, s.v. *hitz*, HITZ-ZATI, «Sílaba» adiera dakar, baina agertzen den adibide zaharrena Orixeren 1963ko bat da.

(100) *leguntzalle*:

- a. betxi leguntzalleak / las eufónicas (2)
- b. eta betxi oyek leguntzalleak deitu litezke / ...letras eufónicas... (4)
- c. Betxi leguntzalle oyek dira / Estas letras eufónicas son (4)
- d. y leguntzalle jartzentzaio / se le intercala una y eufónica (89)
- e. betxao leguntzalleagandik datoz / provienen de las vocales eufónicas (98)

²⁷ Lertxundiren gramatikan hainbat aldiz *enfónica*- errakuntza agertzen da. Lan honetan halako guztiak zuzendu ditut.

- f. (*I*) ta (*t*) betxi leguntzalleak dira / La (*i*) y (*t*) son letras eufónicas (102)
- g. gogoratu bear lirake, betxi leguntzalez esan da emen ere jarriko diran legeak / ténganse en cuenta las reglas eufónicas ya dadas y aquí repetidas (222)

(101) *biguñtzale*:

- a. betxi biguñtzalea / letra eufónica (39)

OEHk ez dakar 'eufónico, a' adiera, ez *leuntzaille* ez *biguntzaille* sarreran. Bai, al-diz, s.v. *bigungarri*; ik. (55) adibidea.

(102) *legun*: euskaldunen artean maizkiro batozko legunak uzten dira itzegitean / la tendencia que tienen los bascos á suprimir las consonantes suaves (106)

3.14. Euskaltzainen «iker-azterpenak» (1919-1920)

Euskera aldizkariaren lehenengo liburukian euskaltzain batzuen txostenak argitaratu ziren, «Euskaltzaiñen iker-azterpenak» izenburupean. Besteak beste, txosten haietan euskal akademiari, hizkuntzari eta dialektoei deitzeko izenez jardun zuten, baita *j*-ren ahoskeraz ere, eta egileek fonetika-fonologiekien lotutako hainbat termino erabili zituzten; gehienak aurreko ataletan agertu zaizkigu, baina badago termino eta aldaera berririk. Maiz termino baten aldamenean gaztelaniazko ordaina edo hitz mailgatua agertzen da, parentesi artean, eta zenbaitetan are esaldi osoa gaztelaniara itzultzen da. Halaber, liburukiaren amaierako hirugarren aurkibideak liburukian agertutako hitz berriak biltzen ditu (Euskaltzaindia 1919-1920: 90-95); noiz edo behin eranskin horren aipamena egingo dugu Azkue, Eguzkitza eta Broussain euskaltzainek erabili zituzten terminoak iruzkintzean.

3.14.1. *Azkue* (1919-1920a-b)

Azpiatal honetara Azkueren aurreko lanetan azaldu ez diren terminoak eta aldaerak baino ez ditut ekarriko.

(103) *ostagi*:

- a. Ostagi (fenómeno fonético) au bestera entzuten da Gernikako ibaí edef aretan (1919-1920a: 4)
- b. Orok dakizute Fonétican ezin ar ditezkelá legetzat onelako ostagi nunbaitekoak (fenómenos particulares) (1919-1920a: 4)

OEHk bi hitz bereizten ditu, sarrera banatan: *ostagi* «Fenómeno atmosférico» eta *hostagi* «Fenómeno fonético» (s.vv.). Bietan agertzen da Azkueren erreferentzia, baina bigarrena baizik ez da hartzen Azkueren hitz berritza. Hala ere, nago ez ote diren biak hitz bakar bat: Azkuek eguraldiarekin lotutako hitz berri gisa sortuko zukeen,²⁸

²⁸ Halaxe agertzen da Azkueren sakeleko hiztegiaren eranskinean (1918: s.v. *ostagi*): «OSTAGI (neol. *), meteoro», non izartxoak Azkuek berak sortutako hitz berria dela adierazten duen. Pagolak (2005: 310) «de *ost(i)* 'cielo' y *agi* 'aparición, fenómeno'» etimologia ematen du. Cf., ildo beretik, «Fenómenos atmosféricos, ORZAGIAK (neol. *); de ORZI + AGI» (Azkue 1916: s.v. *atmosférico*).

eta ondoren haren esanahia hizkuntzaren eremura zabalduko zukeen. Beharbada *hostagi* sarreran dagoen Miranderen adibide *b*-dunak inori pentsaraz ziezaiokeen Azkuek bigarren hitz bat sortu zuela, oraingoan lehenengo osagaia (*b*)*ots* izanik. Baina, gorago ohartarazi dugunez (cf. (88) adibidea), Azkueren aburuz *ots* hitzak batez ere ‘zarata’ esan nahi zuen, eta lan honetan ikusten ari gara ‘soinu’ adierazteko Azkuek *aots* (1891), *abots* (1897, 1898) eta *agots* (1919-1920a) erabili zituela.

(104) *izkin*:

- a. Onetarako iker ditzagun ele oñen izkinak (silabas) (1919-1920a: 4)
- b. Bego, beraz, oso-osorik euskalzain-en lenengo izkina: *eus* (1919-1920a: 6)
- c. Ufats bat auferatuz goazen orain irugañen izkinera: *zain* (1919-1920a: 7)

Aurrekoetan erabili zuen *izkai* neologismo propioaren ordeaz, hemen Arana Goirik sortutako *izkin* hobesten du. Gauza bera gertatzen da beheraxeagoko (108) adibideko *gedin* terminoarekin ere.

(105) *ebaki*: *eus* ori *us* ebakitzen dute (1919-1920a: 4)

(106) *agots*:

- a. Agots-lege (leyes fonéticas) batzuk itz-bañoakoak dira (vocabulares), besteak bi itzen artekoak (perifrásticas), batzuk itz soilenak (temáticas), besteak itz yantzienak (morfológicas) (1919-1920a: 7)
- b. Itz orien *l* agots aldatua da, yatoñiz *r* zan (1919-1920a: 8)
- c. edozein muñ-ulketak aldakuntzea eskatzen du, agots ulduaren uñengo aldakizun bada. Erderaz (la supresión de un fonéma orgánico [oharrean: «Generalmente, consonante»] exige permutación, siempre que el siguiente al elidido sea permutable) (1919-1920a: 8-9)

(107) *ogutzi*:

- a. urte luzeetan *s*’kin ogutzi dutela ta gaur egunean ere oñelaxe ogutzen dutela iñok ere ezin ukatu dezake (1919-1920b: 14)
- b. augatik guk ere antziñatik egin dan bezela, *s*’kin ogutzi ta idatzi beař degula deritzat (1919-1920b: 19)

Agots eta *ogutzi* Azkuek aurreko lanetan (1891, 1897, 1898) erabili zituen *aots*/*abots* eta *oguzi*-ren aldaerak dira. *OEH*n (s.v. *abots*) «*agots* en *Euskera*» zehazten da, eta agertzen den adibide bakarra goiko (106) da. Pagolak (2005) ez du *agots* aldaera aipatzen, eta ez dut aurkitu Bera (1909-1911), Bera & Lopez Mendizabal (1916) eta Azkue (1918) hiztegieta ere. Bestalde, Azkuek (1905-1906) «**Agots** (B-a), ruido de los labios en la masticación, *bruit qu’on fait avec les levres dans la mastication*. (V. **Abots**.)» sarrera ematen du, eta *abots* sarreran, berriz, hauxe ohartarazten du: «Los modernos lo usan en la nueva acepción de ‘sonido oral’ más bien que de ‘ruido inarticulado de la boca’, que es su genuina significación».

(108) *gedin*: Lenbiziko *gedin* ori eřax jausten da (1919-1920b: 15)

3.14.2. Eguzkitza (1919-1920a-c)

Funtsean, Eguzkitzak artikuluxka horietan berak sortutako hitz berri batzuk eta Arana Goiriren beste batzuk erabiltzen ditu:

(109) *izkin*:

- a. Bego izkin ori (1919-1920a: 19)
- b. ¿Zain ala tzain? Irugañen izkin onetzaz zerbait geyago esan nai neuke (1919-1920a: 20)
- c. Izkiñak alkañekin ondo lotuta, bizkoñ esan edo ez esan, alda anditxua dago (1919-1920a: 24)

(110) *izpiakera*:

- a. Nire ustez, euskera-izpiakera (fonetikan) l, n, ta r-ren jañai ts ta tz askozaz be egokiago datortz, euskera-mamiago dira, s ta z baño (1919-1920a: 20)
- b. Azkenengo batzaldian emen norbaitek esan eban izpiakerea (fonetikea) *ciencia natural* zala (1919-1920a: 20)
- c. euren txikitako izkuntzaren izpiakera bereziari askozaz be gitxiago eutsiten dautse (1919-1920a: 21)
- d. euskereak be bere izpiakerearen agerpen bereziak itxi ta galdu ditu (1919-1920a: 21)
- e. baña itz bañuko izpiakerea ezagutzeko, alagalakoak dira (1919-1920a: 24)
- f. Euskal-izpiakera s ta z'ren jañai p, t, k, egokiago dirala dirudi b, d, g, baño (1919-1920b: 28)
- g. izpiakera-lege onen añaika aitatu be ezin leikezala deritxat (1919-1920b: 29)
- h. izpiakera-arauz aldatu leikena, kezka barik aldatu bear dala deritxat (1919-1920c: 44)

Gorago ikusi dugunez (cf. (76) adibidea), *izpiakera* hitz berri aranatarra da, baina Eguzkitzak moldatua.

(111) *aboskin*:

- a. Gure aboskiñak (organos de la voz) beste gauza asko lez, azi ta ezi daikeguz (1919-1920a: 20)
- b. Aboskin oneik, euren ezikuntza-aldian, onetariko edo bestetariko oiturrak artu daroetz (1919-1920a: 20)
- c. bein eta biñitan esanaz aboskiñak be oitu ziran (1919-1920a: 21)
- d. euskaldunen aboskiñak alde ofetara itzuli ta makuñ dagozala darakusku (1919-1920b: 29)

OEHk dakartzan bi adibideak Eguzkitzarenak dira eta *Euskerako* hirugarren aurkibideak Eguzkitzak sortutako hitza dela diosku: «aboskiñ (Eguzk.) — Fenómeno fonético; *phénomène phonétique*. II, 20» (Euskaltzaindia 1919-1920: 90).

(112) *abots*:

- a. abots baterako makuñ, beste baterako mukeñ egoten dira (1919-1920a: 20-21)

- b. edozein abotsen ulketak beste abots baten ulketea daka, bigaen abots onen zegaitia lenengo abots uldua danean. Erderaz: La supresión de un fonema motiva la supresión de otro, siempre que la presencia del primero en el vocablo haya sido causa del segundo (1919-1920a: 25)
- c. Abots au, bere ufengo ezartzen yakonaz aizkide danean, bigaen aldakuntzarik ez dago [...]. Erderaz: [...] Cuando este fonema simpatiza con el que le queremos agregar, no hay segunda permutación (1919-1920a: 26-27)
- d. Aldakuntzaren ostean, batzuetan ufengo abotsa aldatzen da; beste batzuetan ez (1919-1920a: 26)
- e. Ona emen aldakuntza ofeik (aldatzen diran abots ofein buruz-buru) (1919-1920b: 29)

(113) *auzebagi*:

- a. itz ofeik eta beste ofelako asko auzebagi ta esaten dabez (1919-1920a: 21)

Pagolak (2005) eta *OEHk* ez dakarte, eta ez dut *auzebagi* ez antzekorik beste inon aurkitu. Litekeena da, beraz, Eguzkitzak berak sortu izana; zoritxarrez, hirugarren aurkibidean ere ez dago.

(114) *agots*:

- a. edozein muñ-ulketak aldakuntza eskatzen du, baldin agots ulduaren ufengoa aldakizun bada. Erderaz: la supresión de un fonema orgánico exige permutación, siempre que el siguiente al elidido sea permutable (1919-1920a: 24)
- b. Gure Fonetika legetan *tz*, *ts*-ren ufengo agotsak, *bodega*-koak badira, *petakako* itzultzen dituzte, berak *t* galduz (1919-1920a: 24-25)
- c. Aldakuntza batek ezta aldatzen ufengo agotsa au aldakizun izan afen. Erderaz: Una permutación no exige otra, aunque el fonema contiguo sea capaz de ser permutado (1919-1920a: 26)

(115) *izki*:

- a. augaitik euskel-izpiakeran aitaturiko izki (*abots*) onein ostean *ts* ta *tz* egokiago dagozala deritxat *s* ta *z* baño (1919-1920a: 24)
- b. izkirik galdu ez daben itzetan aldakuntzarik be ez legoke (1919-1920b: 29)
- c. augaitik onen zegaitia, izkiren bat galdu daben itzetan be, itzean dirauen *s* ta *z* dirala zuzen ziñetsi daikegu (1919-1920b: 29)

(116) *igedin*, *igidin*:

- a. Abotsen bat kentzen danean, igedin bi aúez-aúe safi aurkitzen dira (1919-1920a: 26)
- b. bein baño safi lenengo igediña uldu ta bigaena gogofu egiten dira (1919-1920a: 26)
- c. L ta n *bodega*-ko igedinakin aizkide baúko dira (1919-1920a: 2)
- d. Batzuk, itzaren lenengo atalak galdu daun igidiñen baten galtze ori, aldakuntza onen zegaitia dala uste dabe; beste batzuk, igidiñaren ulketa ori barik, itzean dirauen *s* ta *z* dirala diño (1919-1920b: 29)

- (117) *gedin*: ufengo oneik igidiñik ez dabe galdu; batzuk gediñik bez (1919-1920b: 29)

3.14.3. Broussain (1919-1920)

Broussainen testuan termino gutxi aurkitu ditut eta bat ere ez da arantarra; berriaz, Broussainek berak sortutakoren bat agertzen da:

- (118) *ots*:
- j* eta *y* erabili dituzte lau *ots* agertzeko: *i*, *j* p[r]antsesa, *ḍ*, eta *j* española (1919-1920: 31)
 - Lenengoa: *Ots* bakoitzak bear duela idatz-agergailu (*representación gráfica*) bat, eta idatz-agergailu ori beti berdiña (1919-1920: 31)
 - Bigañena: Idatz-agergailu bakoitzak ez duela *ots* bat baizik agertu behar (1919-1920: 31)
 - Gipuzkoafen jota lekot (*salvo, fuera de*) nahi nuke beste *ots* guziak eduk ditzagun (1919-1920: 33)
 - Bertze itz batzuetan ondo liteke asierako *i*'ren otsa edukitzea, *ots* ori *y*'rekin agertuz, hala nola: *yagon, yagola, yaramon, yaraunsi* (B, arc) (1919-1920: 34)

Bistan da, Broussainek tradizio luzeagoko *ots* nahiago du (cf. *OEH*, s.v. *hots*), aurreko autore batzuetan ikusi ditugun *aots*, *abots* edo *agots* hitz berrien ordeaz.

- (119) *mingatu*:
- yan* (mingatuz (mingatu-pronunciar): *ian*) Bizkaitar zonbeitentzat (1919-1920: 32)
 - Sortu edo irazan (crear) nahi degun izkera bakunduan, elertizko (literario) euskeran, itz bera beti bearko degu era edo modu beraz mingatu (1919-1920: 32)

Broussainek berak sortutako hitza da, hirugarren aurkibidean zehazten denez: «mingatu (Br.) — Pronunciar; *prononcer*. II, 32» (Euskaltzaindia 1919-1920: 95). Orobat beheragoko *mingapen*.

- (120) *busti*: *jan* ala *jan* (mingatuz: *ḍ*, *d* bustia) Bizkaitar zonbeitentzat, Nafatar, Benafatar eta Lapurtafentzat (1919-1920: 32)
- (121) *mingapen*:
- Elertizko mintzaia guzietan itzek beti mingapen (pronunciación) bera daukate (1919-1920: 33)
 - Bizkai ta Zibero'n bakafik entzuten diren itz batzuri utziko ginioko orain daukaten *j* frantsesa, mingapenez ta «ortografiaz» unela ipiñiz: *jagi, jai, jaibal* (B) *enjogi, eijer, jin* (S) (1919-1920: 34)

3.15. Eguzkitza (1924)

Gorago ikusi ditugun *Euskerako* hitzaldietan bezala (ik. § 3.14.2), Eguzkitzak hitz berri arantarrak eta berak sortutakoak baliatzen ditu. Oraingoan, lehenengo

oin-oharrean, Eguzkitzak artikuluan zehar erabiliko dituen hitz berriak aurkezten ditu;²⁹ haatik, beherago erakutsiko dudanez, ohar horretan ez ditu hitz berri guztiak sartzen.

- (122) *izpiakera*:
- Itz bikoitzak darakuskuezan euskal-izpiakeraren arau batzuk (592)
 - Gure izkuntza onen izpiakera osoa ezagutu ta irakasteko asmoz (592)
 - Iazoera bakoitzak bere izpiakera berezia dauko (595)
 - izpiakera-lege au betetan da ta bere ikuřpena be egoki-egokia da (596)
- (123) *igidin*:
- txosten onetarako iru igidin autu dodaz (592)
 - Itz ořeik, euren lenengo atalaren azken-igidińak artu dauan aldakuntza barik, aldakuntza ořekin baizen bigun, gozo ta eztiak direala deritxat (594)
 - d- euskel-itzen azken-igidińa ińoz be ez da izaten (594)
 - G azken igidińa bein be ez dalako, nai ta ez aldatu beař zan (595)
 - berez azken igidin izan ezkeru (595)
- (124) *gedin*:
- itzaren bigařen atala gedińez asten danean (592)
 - Gedińa ulduaz azken-izkitzat gelditzen danean (594)
 - lenengo atalari bere azken gedińa kendu eutsen (594)
 - Gedin ori kendu ařen (594)
 - azken gedińa ulduaz gelditzen ziran -r asko, -l egin dabez euskaldunak (595)
- (125) *izki*:
- Lenengo atalaren azken-izki gelditzen direnean (593)
 - Iru izki onein aldakuntzak itz bikoitzaren bigařen atala igidińez asten danean (595)
- (126) *abots*:
- Abots biguna bere kide dan abots gogořera itzultzea (593)
 - Abots bakař bat adierazteko, ikuř bikoitz batzuk darabilguz; ts — tř (595)
 - Zetan esan bez, ikuřa bańo abotsa lenago da (596)
- (127) *mingain-agińetako*: D— ta t— abots alkařkideak mingain-agińetako abotsak dira: d— biguna, t— gogořa (593)
- (128) *aosapaitiko*: g— berez eztaři aosapaitiko abotsa izanik (593)
- (129) *agińetatiko*: d— bailitzan, agińetatiko abots gogořera itzultzea (593)
- (130) *mingańetiko*: R— biguna ta l— mingańetiko abotsak dira
- (131) *dardaradun*: r— dardaraduna (593)

²⁹ Cf. «Lan onetan darabilkedazan itz bařiak, emen jařayan azalduko ditut: *Izpiakera* = Fonética; *gedin* = vocal; *igidin* = consonante; *abots* = sonido, voz; *aboskin* = órgano de la voz; *ikuř* = signo; *izki* = letra; *uldu* = suprimir; *ulkea* = supresión» (Eguzkitza 1924: 592).

Eguzkitzak ematen dituen hots sail hauetatik *OEHN mingain-agiñetatiko* (s.v. *mingain*, MINGAIN-HAGINETATIKO), *mingañetiko* (s.v. *mingain*, MINGAINETIKO) eta *dardaradun* (s.v.) baizik ez ditut aurkitu, hiruretan Eguzkitzaren adibideak daudela. Haietatik bat ere ez da agertzen artikuluaeren lehenengo oin-oharrean, beharbada Eguzkitzak ez zituelako hitz berrizat hartu.

- (132) *ogutz-errez*: abots ogutz-efezak eta belafietarako ezti-gofoak dira (594)
- (133) *aboskin*: augaitik euskaldunak, euren aboskiñen azturari jafaituaz beste barrik, azken gediña kendu ezkerro, gelditzen ziran -d oro -t izatera itzuli ebezan (595)
- (134) *geiki*: -D- izan ezik, aitaturiko beste igidiñok, itz bikoitzen erdian safi geikiak (epentéticas) izaten dira (598)

Eguzkitzak sortutako hitza da. *OEHN* (s.v. *gehiki*) haren bi adibide baino ez dira agertzen «Epentético» adieraren barruan. Halaber, halakotzat jo zuen Azkuek: «el lindísimo neologismo eguzkicense *geiki* ‘epentética’» (1919-1920c: 76). Eguzkitzaren beraren hitz berria izanik ere, ez du sartu artikuluaeren lehenengo oin-oharrean.

3.16. Zabala Arana (1924)

Zabala Aranaren gramatikan hitz berri larramenditarrak eta aranatarak kausitzen ditugu. Nolanahi ere den, itxura guztien arabera Zabala Aranaren iturri zuzena Bera eta Lopez Mendizabalen hiztegia izan bide zen (1916), han aurkitzen baitira jarraian ageriaraziko ditudan hitz berri guztiak —edo haien aldaerak— eta ez, berriz, Azkueren hiztegian (1905-1906), ezta Beraren *Euzkel-iztegitxuan* ere (1909-1911), esaterako.

- (135) *oguzi*: Itz-egiten dunak itzak oguzi edo esaten ditu (4)
- (136) *oguzkada*: *Izkiña*, oguzkada batez oguzi edo esaten dan itza ala itz zatia da: *bat, a-ma* (6)

Bera eta Lopez Mendizabalek (1916) ez dakarte *oguzkada* hitza, eta *OEHk* ere ez du jasotzen. Ez dut beste inon aurkitu.

- (137) *izkin*, *izkinbakar*, *bizkindun*, *iruizkindun*, *labizkindun*: Itzak izkin bat ala geyago izan ditzake; itza, ofezkero, *izkinbakaña*, *bizkinduna*, *iruizkinduna*, *labizkinduna*, ta abaf, izan daiteke (6)

Bera eta Lopez Mendizabalek *izkin* eta *iruizkindun* dakartzate (1916: s.vv.). Biak Aranak sortutako hitzak dira, gorago ikusi dugunez (ik. § 3.10). Aldiz, *izkinbakar*, *bizkindun* eta *labizkindun* terminoak hitz berri aranatarren aldaerak dira (cf. (83) adibidea). Pagolak (2005) eta *OEHk* ez dituzte jaso, eta ez ditut beste inon aurkitu: beraz, ezin dugu ziur jakin aldaerok Zabala Aranarenak berarenak diren, ala beste nonbaitetik hartu zitu.

- (138) *izki*: *Izkiak*, itzaren atal txikienak dira (8)
- (139) *gedin*: Izki batzuek oguzten geldi bezela egon gaitzke, *a...* oguzten eta; olako izkiai *gediñak* deritze. Gediñak bost dira: a, e, i, o, u (8)

(140) *igidin*:

- a. Beste izkiak *igidiñak* dira, beren oguzkera igikoña, edo gelditu-eziña, dako (8)
- b. Azken-izkia igidiña duten itzai zela erasten zaie? (37)

Bera eta Lopez Mendizabalek *izki*, *gedin* eta *igidin* dakartzate (1916: s.vv.). Hirurak Aranak sortutako hitz berriak dira (cf. § 3.10) eta, areago dena, Zabalak bakoitzari buruz ematen duen azalpena Aranaren (1897) lanean ikusi ditugun oso antzekoak dira.

(141) *bikoitz*: Bi gedin bat bezela, oguzkada batez, esaten diranean, *bikoitzak* dira. Sei dira: au, eu, ai, ei, oi, ui (8)

Bera eta Lopez Mendizabalek badakarte (1916: s.v.). *OEHN* (s.v.) jasotako adibide zaharrena Lopez Mendizabalen 1913ko bat da.

4. Ondorioak

Artikulu honetan xvi. mendetik xx. mende hasiera arte euskaraz idatzitako gramatika-lanak, abezeak eta artikulu batzuk aztertu ditut, fonetika-fonologiekin lotutako euskarazko lehenengo terminoak biltzeko eta iruzkintzeko asmoz. Bildutako terminoetatik ondorio hauek atera daitezke:

- Lan zaharretan termino mailegatuak dira nagusi: *letra*, *pronun(t)ziatu*, *bokall boiel*, *konsonant(e)*, *silaba*, *diptongo*, etab. Joera hori xix. mende hasiera arte sumatzen da, baita Larramendiren jarraitzailea izan zen Kardaberaz kasuan ere. xix. eta xx. mendeetan Jauregi da hitz berririk erabiltzen ez duen autore bakarra.
- Espero zenez, hitzberrigintzari dagokionez, Larramendi, Azkue eta Arana Goiri hiru mugarrizat jo behar ditugu. Larramendiren hitz berriak —egokituak edo egokitu gabe— ondoko autore hauen lanetan aurkitu ditut: Astigarraga (*izkira*, *nasbagnetu*), Azkue (*ogu(t)zi*, *aots/abots/agots*, *esageida*), Ormetxe (*betxia*, *geibetxia*, *ogusittu*, *oskide*) eta Lertxundi Baztarrika (*betxi*, *betxao*, *nasgabetu*). Bestalde, Azkuek hainbat neologismo sortu zituen: *aoskinde*, *izkai*, *biki*, *sendogarri*, *ostagi* etab., baina gehienek ez zuten jarraipenik izan. Hala ere, Larramendiren hitz berri batzuk Arana Goirik eta aranatarrek erabiltzen jarraitu zuten, ez baitzekiten jesuitak sortuak zirela: *abots*, *izki*. Azkenik, Aranak sortutako hitz batzuek ez zituzten ondoko egileek erabili (*izpijau*, *ekar*, *bazkar*, *aboska*); aldiz, beste batzuek nolabaiteko arrakasta lortu zuten hurrengo hamarkadetan (*izkin*, *gedin*, *igidin*, *izpijakera*).
- Hiru mugarri nagusien eraginetik kanpo, beste zenbait autorek beren terminoak sortu eta beraien bakarrak erabili zituzten: Artxu (*azanz egile*, *izendatu* ‘ahoskatu’), Garmendia (*doñuletra*, *doñugabe*, *osakin*, *bikote*) eta Broussain (*mingatu*).

Amaitzeko, ondoko taulan, artikulu honetan aztertu ditudan egileek termino nagusietarako erabili zituzten hitzak emango ditut, konparazioa erraztearren.

1. taula

Azterturako egileek termino nagusietarako erabili dituzten hitzak

	Leiz	ES	Ht	Cb	Astig	Jaur	Artxu	A	Ormetxe	AG	Garmen	LB	Eguzk	Br	ZA
<i>letra</i>		letra	letra	letra	letra izkita	letra	letra		betxia	izki	letra	berxi	izki		izki
<i>hots</i>				soñu		boz		aots abots (1897) agots (<i>Eus</i>)		izpi(a) aboska		soñu	abots agots	ots	
<i>aboskattu</i>	pronunziatu		prononzatu	pronunziatu	nabagetu	pronunziatu ebatsi	izen datu	oguzi ogutzi (<i>Eus</i>) ebaki (<i>Eus</i>)	ogusitu			nasgabatu	auzebagi	mingatu	oguzi
<i>aboskera</i>				pronunziazio esaera		pronunziazio		oguzmen oguzkera						mingapen	
<i>bokal</i>	bokal	bokal	botel	bokal		bokable	azanz egile azanzgile...	edegi gedin (<i>Eus</i>)	agotar	gedin	doñuletra	berxao berzao	gedin		gedin
<i>konsonante</i>	konsonant	konsonant		konsonante				irxi	oskide	igidin	doñugabe	batorzko batorzko	igidin igidin		igidin
<i>silaba</i>	silaba	silaba		silaba				izkai izkin (<i>Eus</i>)	geibetxia	izkin	osakin	itzgai itz zati	izkin		izkin
<i>diprongo</i>	diprongo	diprongo		diprongo				biki			bikote				bikoitz
<i>azentu</i>								sendogarri							
<i>tilet</i>	akzentu					tilet	tileta	ezaugarri							

Bibliografia

- Altuna, Patxi & Esther Zulaika. 2004. *Aita Agustin Kardaberaz. Eusqueraren berri onac (edizio kritikoa)* (Euskararen Lekukoak 23). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Arana Goiri, Sabino. 1888. *Pliegos euskeráfilos I*. Bartzelona: A. López Robert.
- Arana Goiri, Sabino. 1896. *Lecciones de ortografía del euzkera bizkaino*. Bilbo: S. Amorrotu.
- Arana Goiri, Sabino. 1897. *Umiaren lenengo aizkidia: Bizkaiko euskeraz irakurtzen ikasteko, Bizkañar batek iratzija*. Bilbo: Bizkaya'ren Edestija ta Izkerea Pizkundia.
- Artxu, Jean-Baptiste. 1852. *Grammaire basque-française à l'usage des écoles du Pays Basque / Uskara eta franzes gramatika, Uskalherrietaco haurrentzat eguina*. Baiona: Foré eta Lasserre (2. argit. 1853; 3. argit. 1868).
- Artxu, Jean-Baptiste. 1868 [1852, 1853]. *Grammaire bilingue française et basque [...] Troisième édition / Bi mihiren gramatika uskara eta franzes [...] Hirurgarren agertzia*. Baiona: Lasserre.
- Astigarraga y Ugarte, Luis. 1825. *Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de gramática, para el uso de la juventud de la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa, con ejemplos y parte de la doctrina cristiana en ambos idiomas*. Donostia: I. R. Baroja.
- Astigarraga y Ugarte, Luis. 1827. *Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de gramática, para el uso de la juventud de la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa, con ejemplos y parte de la doctrina cristiana en ambos idiomas [...] Segunda edición corregida y aumentada*. Tolosa: J. M. de la Lama.
- Astigarraga y Ugarte, Luis. 1839. *Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de gramática [...] Segunda edición, corregida y aumentada [sic]*. Tolosa: Viuda de la Lama.
- Astigarraga y Ugarte, Luis. 1840. *Diccionario manual bascongado y castellano y elementos de gramática para el uso de la juventud de la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa, con ejemplos y parte de la Doctrina Cristiana en ambos idiomas [...] Tercera edición corregida y aumentada considerablemente con una tabla de ejercicios muy útiles para la conjugación de los verbos y análisis gramatical*. Tolosa: Viuda de Mendizábal.
- Azkue, Resurrección M. 1891. *Euskal-Izkindea / Gramática eúskara*. Bilbo: Astuiko Jose.
- Azkue, Resurrección M. 1897. Euskerearen edertasunak. *Euskalzale* 1. 361-362, 369, 377.
- Azkue, Resurrección M. 1898. Erantzune batzuk. *Euskalzale* 2. 18-19.
- Azkue, Resurrección M. 1905-1906. *Diccionario vasco-español-francés*, 2 lib. Bilbo & Paris: P. Geuthner.
- Azkue, Resurrección M. 1916. *Diccionario español y vasco*. Bilbo: Garmendia y Viciola.
- Azkue, Resurrección M. 1918. *Diccionario de bolsillo*. Bilbo: Imp. del Corazón de Jesús.
- Azkue, Resurrección M. 1919-1920a. Gure «Academia» oni dagokion euskal-izena. *Euskera* 1(2). 3-13.
- Azkue, Resurrección M. 1919-1920b. Euzkera ala euskera? *Euskera* 1(2). 14-19.
- Azkue, Resurrección M. 1919-1920c. Del vocablo vasco correspondiente a «publicación». *Euskera* 1(2). 74-76.
- Bera, Erroman [Bera'tar Erroman Aba, Juan María Román Dornaku Olaetxearen erlijio-izena]. 1909-1911. *Euzkel-iztegitxua*, 2 lib. Iruñea: La Tradición Navarra.
- Bera, Erroman [Bera'tar Erroman Mirena Aba Buruñurduna, Juan María Román Dornaku Olaetxearen erlijio-izena] & Isaak López Mendizabal [Lopez Mendizabal'dar Ixaka]. 1916. *Diccionario castellano-euzkera. Euzkel-erdel-iztegia*. Tolosa: E. López.

- Bilbao, Gidor. 2015 [2006]. *Joanes Etxeberri Sarakoaren saiakera-lanak eta latina ikasteko gramatika: edizioa eta azterketa*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko doktorego-tesia. http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Gidor_Bilbao_TESIA.pdf.
- Bilbao, Jon. 1970-1985. *Eusko Bibliographia (Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo C)*. Donostia & Bilbo: Auñamendi & UPV/EHU (Edizio elektronikoa erabili dut: <http://bibliotecaforal.bizkaia.eus:81/search>).
- Broussain, Pierre. 1919-1920. J'ren otsa eta idazkera. *Euskera* 1(2). 31-34.
- DAut* = Real Academia Española (1726-1739).
- Dávila, Pauli & Lore Erriondo. 2012. *Gure eskola-liburuak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Eguzkitza, Juan Bautista. 1919-1920a. Euskalzain ala euskaltzain (euskeltzain). *Euskera* 1(2). 19-28.
- Eguzkitza, Juan Bautista. 1919-1920b. Irugañen txostena. *Euskera* 1(2). 28-31.
- Eguzkitza, Juan Bautista. 1919-1920c. Euskalki ala euskalgi. *Euskera* 1(2). 38-44.
- Eguzkitza, Juan Bautista. 1924. Itz bikoitzak darakuskuezan euskal-izpiakeraren arau bazuk. *RIEV* 15(4). 592-598.
- Etxeberri, Jean. 1712. *Escual Herriari eta escualdun guztiei escuarazco hatsapenac latin ikhasteco*. Zarauzko frantziskotarren komentua: Caja nº 20. Ik. Bilbao (2015 [2006]).
- Euskaltzaindia. 1919-1920. Itzberika (Índice de neologismos.— Table des néologismes). *Euskera* 1(2). 90-95.
- Fernández de Gobeo Díaz de Durana, Nerea. 2018. La enseñanza del castellano a vasco parlantes en Argentina: la *Gramera berria, ikasteko eskualdunec mintzatzen espainoles* (1850) de Francisco Jáuregui. *Signo y Señal* 33. 7-21. <https://doi.org/10.34096/sys.n33.5254>.
- Garmendia, Jose Ignazio. 1911. Segurako euskeraren ichura berezia. *Euskal-Esnalea* 4. 269-271.
- Gómez-López, Ricardo. 2023. Euskal gramatikagintza zaharrari buruzko ikuspegi laburra. In Sónia Duarte, Vanessa Gomes Teixeira Anachoreta & Rogelio Ponce de León (arg.), *Historiografía gramatical peninsular: basco, catalão, galego e mirandês em contexto*, 9-77. Porto: FLUP.
- Harriet, Martin. 1741. *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhahi nahi dutenen faboretan*. Baiona: Fauvet Alarguna eta J. Fauvet.
- Jauregi, Francisco. 1850. *Gramera berria, ikasteco eskualdunec mintzatzen espainoles, dibiditua bi partetan: lehena ortographiaren gainian, eta bigarrena lenguaryaren ikasteko erreski mintzatzen*. Buenos Aires: Imprenta Errepublicana.
- Jauregi, Francisco. 1860. *Gramera berria, ikasteko eskualdunec mintzatzen espainoles; o sea Nueva gramática para enseñar a los vascos a hablar español [...] Con u[n]a disertación preliminar sobre el vascuence y un espécimen de las antiguas poesías de los cántabros, por J. Mariano Larsen*. Buenos Aires: P. Morta.
- Jauregi, Francisco. 1883. *Gramera berria, ikasteko eskualdunec mintzatzen espainoles; o sea Nueva gramática para enseñar a los vascos a hablar español [...] Con una disertación preliminar sobre el vascuence y un espécimen de las antiguas poesías de los cántabros por J. Mariano Larsen*. Buenos Aires: Igon Hermanos.
- Kardaberaz, Agustín. 1761. *Eusqueraren berri onac*. Iruñea: A. Castilla.
- Larramendi, Manuel. 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latin*, 2 lib. Donostia: B. Riesgo y Montero.

- Leizarraga, Joanes. 1571. *Kalendrerera, Bazko noiz daten ilhargui berriaren eta letra dominicalaren eçagutzeco manerarequin [...] ABC edo Christinoen instructionea othoitz eguiteco formarequin*. Arroxela: P. Hautin.
- Lertxundi Baztarrika, Juan Manuel [Lertxundi ta Baztarrika-tar Juan Manuel]. 1913. *Euzkal-iztiya [...] Era berri ta pollit batez adierazten da bertan euskal aditza / Gramática baska [...] En ella se explica por un procedimiento nuevo y claro el verbo baskongado*. Donostia: J. Baroja e Hijos.
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (10. argit. elektr. 2022: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- OEH = Mitxelena & Sarasola (1987-2005).
- Oñederra, M. Lourdes. 1989. Euskal fonologiazko berriak 1900 arte. *ASJU* 23(1). 115-132.
- Ormetxe, Pedro Antonio. 1896. *Agakia: euskeras irakurten ikastekoa, Bizkaiko elexgizon batek iratzija*. Bilbo: Amorrortu.
- Ormetxe, Pedro Antonio. 1897. *Agakia: euskeras irakurten ikastekoa Bizkaiko elexgizon batek iratzija. Zer bait geituta bigarēnes argitaratuten da*. Bilbo: Amorrortu.
- Pagola, Inés. 2005. *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri (Iker 18)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Real Academia Española. 1726-1739. *Diccionario de la lengua castellana*, 6 lib. Madril: Imprenta de F. del Hierro & Imprenta de la Real Academia Española por la viuda de F. del Hierro & Imprenta de la Real Academia Española, por los herederos de F. del Hierro (argit. elektronikoa erabili dut: <https://apps2.rae.es/DA.html>).
- Trask, Robert Lawrence. 1996. *A dictionary of Phonetics and Phonology*. Londres & New York: Routledge.
- Zabala Arana, José [Zabala-Arana'tar Joseba]. 1924. *Eliztia gipuzkeraz. 1 mala*. Donostia: Loyola'tar Iñaki Deuna'ren irafkola.

